



2016KO MEMORIA



INDIZEA

1.AURKEZPENA

2. VISESA

- 2.1. Akziodunak eta Administrazio Kontseilua
- 2.2. Gure xedea, ikuspegia eta balioak
- 2.3. Visésaren bilakaera
- 2.4. Proiektu estrategikoak
 - 2.4.1. Bolueta
 - 2.4.2. Zorrotzaurre
 - 2.4.3. Galindo ibarra
- 2.5. Lurzoruen zorroa
- 2.6. Sustapen-zorroa
- 2.7. Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Plana
- 2.8. EuskoRegite
- 2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

3. INTERES-TALDEAK

4. 2016KO JARDUERA

- 4.1. Giza taldea
 - 4.1.1. Organigrama funtzionala
 - 4.1.2. Pertsonen arloko emaitzak
 - 4.1.3. Berdintasuna, osasunaren prebentzioa eta lan-segurtasuna
 - 4.1.4. Komunikazioa, lan-harremanak eta ezagutzaren kudeaketa
- 4.2. Jarduera-emaitzak
 - 4.2.1. Hiria berroneratzeko proiektu estrategikoa
 - 4.2.2. 2016ko sustapen-jarduera
 - 4.2.3. Sinatutako kontratuak eta eskriturak
 - 4.2.4. Berrikuntza, jasangarritasuna eta zaharberrikuntza
- 4.3. Bezeroak
 - 4.3.1. Kokapena
 - 4.3.2. Bezeroekiko harremanak
- 4.4. Sozietatea
 - 4.4.1. Hasitako eta amaitutako etxebizitzak
 - 4.4.2. Tokiko erkidegoko inbertsioak
 - 4.4.3. Aliantzak, hornitzaileak eta laguntzaileak

1. AURKEZPENA

Iñaki Arriola López, Visesako presidentea.

Carlos Quindós Fernández, Visesako zuzendari nagusia.

VICESA, memoria honetan, 2016ko kudeaketa eta lortutako emaitzak aurkezten ditu.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko sozietate instrumentala den aldetik, VISESAren oinarrizko jardura da etxebizitza duinak eta pertsonen beharretara egokituak eskaintzea beren kabuz lortu ezin dituzten pertso-nei, eskubide hori bermatzen baitu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko legeak. Hori dela eta, VISESAren jardueraren muina hauek osatzen dute: etxebizitzak sustatzea, bai alokairuan, bai salmentan; etxebizitzak birgaitzea, eta hiri-inguru degradatuak berroneratzea.

VICESAren proiektu estrategikoak aurrera doaz pauso sendoz:

Bilboko Bolueta auzoan, babes ofizialeko 108 etxebizitzako eta alokairuko 68 etxebizitza sozialeko sustapena errealitatea da jada. Etxebizitza horiek kontsumo ia hutseko eraikinak dira, babes ofizialeko etxebizitzetan are zentzuzkoagoa den ezaugarria. Zorrotzaurrek, hiri eraldaketarako Euskal Herriko proiekturik garrantzitsuenetako batek, bi mugarri gainditu ditu: UE1 urbaniza-zio-proiektuaren hasierako onespina eta UE1 birpartzelazio-proiektuaren inskripzioa.

Eta SmartEnCity-Koroatze europar proiektua erreferentea da jada bere alorrean: birgaitzea, hiri-berroneratzea eta berritzea. Otsailean hasi zen Gasteizko auzo honen hirigintza-erlidaketa, iraunkortasuna helburu duena, baina, batez ere, auzokideen bizi-kalitatea hobetzeko bidea zabaltzen duena hiru alorretan: birgaitze energetikoa, mugikortasun jasangarria eta informazioaren teknologien erabilera.


Izan ere, horixe da VISESAren konpromisoa euskal gizartearekin: egunero lanean aritzea etxebizitza behar duten pertsona guztiek eskuratu ahal izan dezaten.



2. VISESA

2.1. Akziodunak eta Administrazio Kontseilua

Visesaren gaur egungo kapital soziala 37,2 milioi eurokoa da, eta honelaxe banatzen da titularitatea:



VISESAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAERA "EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, S.A."

PRESIDENTEA:

- **Iñaki Arriola López**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

PRESIDENTEORDEA:

- **Pedro Javier Jauregui Fernández**

Etxebizitza sailburuorde

KIDEAK:

- **Paloma Usatorre Mingo**

Zerbitzu zuzendaria

- **Mario José Yoldi Domínguez**

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria

- **Pablo García Astrain**

Etxebizitza zuzendaria

- **Hernando Lacalle Edeso**

Aurrekontuen zuzendaria

- **Pedro Martinez de Alegría Pinedo**

KARTERA, 1, S.M.

- **Fernando Irigoyen Zuazola**

KUTXABANK, S.A.

- **Alfredo Zabaleta Barredo**

LABORAL KUTXA, KREDITU-SOZETATE KOOPERATIBOA

VISESAKO ZUZENDARI NAGUSIA:

- **Carlos Quindós Fernández**

KONTSEILUKOA EZ DEN IDAZKARIA:

- **Alberto Arzamendi Ceciaga**

2.2. GURE XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA

Visesa Eusko Jaurlaritzaren menpeko eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera atxikitako sozietate publikoa da, eta **etxebizitzaren zein lurzoruaeren arloko lurralde-politika garatzen du beste instituzio batzuen laguntzaz.**

Lurzorua kudeatu eta babes publiko jasangarriko etxebizitzak sustatzen ditu, jabetzan nahiz alokairuan, EAEn etxebizitza-premiak dituzten taldeentzat, betiere Eusko Jaurlaritzak zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

Era berean, Visesak **hiria biziberritzeko eta berritzeko prozesua bultzatu**, sustatu eta bertan lagundu eta parte hartzen du bete-betean. Horrez gain, etxebizitzak eta azpiegitura publikoak ere zaharberritzen ditu, irisgarritasuna sendotzeko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta, lurralde-orekaren ikuspegitik, lurralde jasangarria sustatzeko.

IKUSPEGIA

Visesak **erreferentea** izaten jarraitu nahi du EAEko **babes publikoko etxebizitzaren zein zaharberrikuntzaeren arloan**, baita Eusko Jaurlaritzarentzako **eragile erabakigarria** ere, haren planak betearazteko orduan. Horretarako:

- Helburu dituen taldeen premiei erantzuteko moduko produktu eta zerbitzuen zorroa garatzen du, eta ekonomiaren, gizartearen zein ingurumenaren ikuspegi hirukoitzetik da jasangarria.
- Gainerako eragile publiko esku-hartzaileekin koordinatu eta lan egiten du, lurralde-plangintza integratua ezartzeko eta baliabideak hobeto ustiatzeko.
- Bete-betean parte hartzen du lurraldearen dinamizazio ekonomiko eta sozialean.
- Gure jardueraren ondorioz sortutako erantzukizun soziala sustatzen du.
- Proiektu ekonomiko jasangarria da.
- Bertako langile-taldea konprometitu eta gogobeteta dago.

BALIOAK

- Visesako bezeroen eta pertsonen gogobetetasuna
- Elkarlana / Lankidetzatza
- Talde-lana
- Gizarte-erantzukizuna
- Finantza-egonkortasuna
- Epe luzeko ikuspegia
- Gardentasuna
- Pertsonen eta akziodunen konpromisoa
- Eraginkortasuna
- Moldakortasuna / Berrikuntza

2.3. VISESAREN BILAKAERA

Visesaren mugari nagusiak gure interes-taldeentzako zerbitzua hobetzeko bilakaera iraunkorrean:

1990	Visesa sozietate publikoa sortu zen (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. - Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.).
1992	Visesaren jarduera hasi zen.
1994	Geure lehenengo sustapena esleitu genuen: babes ofizialeko 373 etxebizitza Intxaurren (Donostia).
1996	Ziurtagiri energetikoa ezarri genuen geure sustapen guztietan.
2000	BBK, Kutxa, Vital eta Laboral Kutxa akziodun egin ziren, eta Orubide zein Alokabide sozietateak sortu ziren (% 50 Visesaren partaidetzapean).
2000	ISO 9001 ziurtagiria lortu genuen kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
2002	EAEko etxebizitza hutsak mobilizatzeko programa jarri zen abian (Bizigune programa).
2003	COAVNek eraikuntzako lan onenari emandako saria irabazi genuen: 168 etxebizitza sozial Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
2005	Eusko Jaurlaritzak Zilarrezko Q aitortu zigun kudeaketa bikainagatik.
2005	ISO 14001 ziurtagiria lortu genuen ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
2007	Hasitako 10.000 etxebizitza eta eskrituratutako 5.000 etxebizitza genituen EAEn.
2008	Zilarrezko Bikain Ziurtagiria lortu genuen euskararen agerpen, erabilera eta kudeaketagatik.
2008	IISBE erakundeak (Internacional Initiative for Sustainable Built Environment) Bermeon egindako babes ofizialeko 50 etxebizitzako sustapena hautatu zuen, "Eraikuntza Jasangarriaren Munduko Konferentzia - SB08" Espainiako ordezkaria izan zedin.
2009	COAVNeko Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkarteak Boluetan egin genuen proiektuari eman zion saria "Hiria, hirigintza eta ekologia" lehiaketaren XI. edizioan.
2010	Aedipe-Human-Giza Kapitala Saria lortu genuen pertsonetan oinarritutako berrikuntzan (administrazio publikoen kategorian). 10.000 etxebizitza genituen esleituta.
2010	I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak PIME's proiektua hautatu zuen (Visesak Salburuan babestutako 432 etxebizitza egiteko proiektua, besteak beste) betearazpena batera finantzatzeko asmoz, bizitegi-garapen jasangarriaren adierazgarri zen-eta.
2010	I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak OPEN HOUSE proiektua hautatu zuen, eraikinen jasangarritasunaren ebaluaziorako metodologia europarra garatzeko eta ezartzeko. Proiektua 2013an itxi zen.
2011	Amaitutako babes publikoko etxebizitzaren kopuruak urteko marka hautsi zuen -5.473 etxebizitza-, eta, eurretatik, Visesak herena egin zuen guztira.
2011	Visesak eta EHUko Arkitektura Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, industrializazioari eta etxebizitza babestuei buruzko tailerra eta ikerketa-taldea garatzeko.
2012	Zerbitzugintza energetikoari eman genion hasiera, eta etxebizitzaren 400etik gora jaberekin sinatu genituen kontratuak.
2012	Gardentasun eta zerbitzu hobearen mesedetan, kontratazio-espedituentzako argitaratzen hasi ginen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Atarian (kontratugilearen profila).
2013	Gaztela eta Leongo Juntak bizitegi kolektiboaren kategoriako eraikuntza jasangarriaren IV. saria eman zion Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenari.
2013	Prebentzioaren eta lanaren arloko ekimen publiko onenaren saria eman ziguten Arkitektura Teknikoaren eta Eraikuntzako Segurtasunaren XVI. Sari Europarretan.
2013	Merkaturatzeko modalitate berriak diseinatu eta abian jarri genituen: erosteko aukera eskaintzen duen alokairua eta ordainketa geroratua eskaintzen duen erosketa.
2013	Endesak 2013ko higiezinaren sustapen jasangarrienaren saria eman zigun Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenagatik.
2013	I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak OSIRYS proiektua hautatu zuen, ekomaterialak garatzeko eta, horren bidez, etxebizitzaren barruko aldeko airearen kalitatea hobetzeko.

2014	EuskoRegite plataforma jarri zen abian, etxebizitza Sailburuordetzari zerbitzua emateko.
2014	"Babestutako Etxebizitzako Jarduera Onenen" AVS Saria: Visesak sustatutako babes ofizialeko 242 etxebizitzako proiektua errendimendu handikotzat hartu da eraikuntza jasangarriaren faktore guztietan, eraikinaren kontsumoak zeroakoak direlako ia-ia (NZEB) eta kalifikazio energetikoa duelako.
2014	Obren lizitazioarako orriak aldatu ziren, kontratistek azpikontratistekin dituzten betebeharrak txertatzeko eta ordainketa-baldintzak hobetzeko.
2014	Mutualia Sariaren VI. Edizioko akzesita lortu genuen, Visesak laneko osasunaren zein segurtasunaren arloan garatutako prebentzio eta kudeaketagatik.
2014	Nazio Batuetako Jarduera Egokien Nazioarteko X. Lehiaketan parte hartu genuen (Dubai 2014). Honako jarduerak hau aurkeztu genuen: "BILBO-BOLUETA: PERTSONENTZAKO HIRIGINTZA. Hiria biziberritzea eta ingurune naturala berreskuratzea". BEST ziurtagiria lortu genuen, eta finalisten zerrendan ere sartu gintuzten (SHORT LIST).
2015	Orubide integrazioa: Orubide argitaratzea eta Orubideren aholkularitza jardueraren salerosketa kontratua sinatzea eta langileak Visesa eta Alokabiden subrogatzea.
2015	Enpresa txiki eta ertainen proiektua arrakastaz amaitzea, energia eraginkortasun eta jasangarritasun eremuan egoitza garapen ereduaren eremuaren barruan sartutakoa, Gasteizko Zaramagan 30 etxebizitza diruen eraikin bat berrituz.
2015	Europar Batzordeak "Smart Cities and Communities SCC1-205 (H2020)" deialdian aurkeztutako SmartEnCity (Koroatze auzoa) birgaitze proiektua onartzea, eraginkortasun energetikoan, garraioan eta IKTetan integratutako eta orekatutako konponbideak identifikatu, garatu eta zabaltzeko, hiri eremuetan bizi-kalitatea jasangarritasunez hobetzeko. Koroatze auzoan erakusketa (Gasteiz).
2015	Visesaren Gardentasun Ataria argitaratu zen.
2016	Boluetako etxebizitzetako fatxadak hautatzeko parte-hartze prozesua (108boe+63es eta 190pte).
2016	Hasi-Hazi proiektua: giltzarri kulturalak garatzea.
2016	WISESA eta ORUBIDE sozietatea xurgapen bidez bat egiteko eta ORUBIDEn aktiboak WISESAn integratzeko prozesua amaitzea. Orubiderekin xurgapen bidezko bat-egitearen eskritura sinatu zen.
2016	Jasangarritasunari buruzko bigarren txostena egitea eta argitaratzea, GRI metodologian oinarrituta, gizartearekin eta gardentasunarekin daukagun konpromisoaren seinale.
2016	Eibarko Txonta eremuan zerbitzuak emateko kontratua sinatu zen, apirillean.
2016	San Inazio zubiaren (Visesaren lehenengo zubia) lizitazioa, abenduan.
2016	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana EUSKADI 2020. 5 ildo eta arlo estrategikoetan parte hartzea. 2. lan-ildoaren liderra izatea ("Birgaitze integrala eta hiri-berrikuntza").
2016	Otsailaren 1ean, Gorka Urtaran Gasteizko alkatearekin eta Angel Toña sailburuarekin Aldabe Gizarte Etxean antolatutako ekitaldian, SmartEnCity ekimenari hasiera ematea, eta ondoren, proiektua abiarazteko bilera, Gasteizko Europa Biltzar jauregian. Europako 6 herrialdeetako 35 kidek hartu zuten parte.
2016	Hitzarmenak. Eibarko Udalarekin (Txonta), Lekeitiokoarekin, Mundakakoarekin,... sinatu ziren.



2.4. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

2.4.1. Bolueta

Bilboko "Bolueta" 421. banaketa-gunerako proiektuak gizartearen onerako berreskuratu nahi ditu Metropolialdeko Bilboko ingurunean erabiltzen ez diren lurzoru industrialak. Helburu bakarra, ordea, ez da hirigintzari begira hondatutako dagoen eremua berrikustatzea, jarduera adierazgarria egitea baizik. Estrategiari begira, gaur egungo egoera hondagarria alderantzizatzeko aukera emango du proiektuak, eremua oso-osorik biziberrituko da-eta. Proposamenak lotune estu-estua dauka ibaiarekin, ingurune naturala funtsezko hiru esparrutan berreskuratu ahal izateko: arkitektura, mikrohiria eta sektorea. Proiektuan, gainera, administrazio publikoek sustatutako etxebizitza sozialak ere sortuko dira, 1.100, guztira, eta, eurentatik, 680 babes publikokoak izango dira araubide baten edo bestearen eraginpean. Proiektuak funtsezko faktore bereizgarriak ere nabarmenduko ditu: aurrezki energetikoa eta material natural zein osasungarrien bidez egindako eraikuntza.

Gunean bertan, zenbait lehiaketa publiko egin dira, hirigintzako kudeaketarako agiriak garatzeko, urbanizazioko proiektuak zein 1. faseko eraikuntzako proiektuak idazteko eta, fase horretan, honako haxe eraikitzeak: araubide orokorreko 108 etxebizitza babestu, araubide bereziko 63 etxebizitza eta tasatutako 190 etxebizitza. Sustapeneko etxebizitzak 2013ko irailean zozkatu ziren.

2014an urbanizazio-proiektua behin betiko onetsi zen eta Kontzertazio Batzordeak A faseko urbanizazio-obrak lizitatu eta Exbasa-Amenábar aldi baterako enpresa-elkarteari adjudikatu zitzaizkion. Obrak 2017ko irailean bukatuko direla aurreikusi da.

Aldi berean, 2014ko azaroan 108 BOE eta 63 ES eraikitzeak obrak lizitatu ziren. 63 ES + 108 BOE eraikitzeak obrak Construcciones Sukia Eraikuntzak SARI adjudikatu zitzioten 2015eko martxoan. 2018ko lehen seihilekoan bukatuko direla aurreikusi da.

	Etxebizitzak guztira	Tipologia			
		BOE	ES	PTE	EA
VIIESA	680	162	63	383	72
NEINOR	420				420
Guztira	1.100	162	63	383	492

	Guztira	1. fasea			2. fasea	3. fasea		4. fasea		
		RE-1A1	RE-1A2	RE-1B	RE-2	RE-3A	RE-3B	RE-4A	RE-4B	RE-4C
VIIESA	680	108 BOE	63 ES	190 PTE		54 BOE	90 PTE		72 EA	103 PTE
NEINOR	420				328 EA			92 EA		

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **ES:** etxebizitza soziala - **PTE:** prezio tasatuko etxebizitza - **EA:** etxebizitza askea

2.4.2. Zorrotzaurre

Zorrotzaurreko gunea izen bereko penintsulan dago kokatuta, San Inazio eta Deustua auzoen aurrean, hain zuzen ere. Ekialdean, Deustuko kanala du mugakide; eta, mendebaldean, Nerbioi ibaia.

838.781,25 m²-ko azalera dauka, eta Bilboko hirigintza garatzeko azken aukera handia eskaintzen du. Hori dela eta, udalak jarduketa hori Zorrotzaurrekoarekin lotzeko aukera ezin hobea dauka, udalerrri osoan eremu berritzaile bereizgarri berria egon dadin eta Bilbok nazioartean berriro ere protagonismo handia eduki dezan. Zorrotzaurreko Plan Berezia Zaha Hadid arkitekto anglo-irakiar ospetsuak (2014ko Pritzker Saria) diseinaturako Master Planean dago oinarrituta, eta, bertan, auzokoen, elkarteen, alderdi politikoaren... ekarpenak ere hartu dira kontuan.

2004an lehenengo Master Plana egin zenetik, Zorrotzaurreko proiektu jasagarria diseinatzea izan da helburu nagusietakoa, hau da, bertan garatu beharreko jarduketek ingurumena errespetatzea eta etorkizuneko belaunaldientzat behar den moduan uztea.

Orain arte Bilbo eraldatzeko erabilitako filosofia lehendik zegoen hiriaren berrerabilpenean egon da oinarrituta. Horren haritik, Zorrotzaurreko eremu hondatua zaharberrituko da, eta, horren ondoren, kalitateko hiri-eremu berria izango da. Horrez gain, Deustua zein San Inazio auzoak ere osatuko direnez, hiribilduko erdialdeko erriberako pasealekuei emango zaie jarraipena.

Planaren elementu nagusia Zorrotzaurre uharte bihurtzea izango da. Kanala irekiko da, egindako zenbait azterketa hidraulikok egiaztatu egin dutelako kanala ireki beharra dagoela Bilboko uholdeen arriskua murrizteko. Kanalaren irekieraren ondorio onak Alde Zaharreraino iritsiko dira.

Zorrotzaurre diseinatzeko orduan, beharrezko erabilerak eta dentsitatea hartu dira kontuan, hiri-garapen trinkoa eta mugikortasun jasangarria lortzeko. Uhartean bertan, bi auzo buruaski egongo dira mutur banatan. Bietan, era guztietako jarduerak garatuko dira: etxebizitzak, saltegiak, bulegoak, ekipamendu publikoak, aisialdi-guneak...

Zorrotzaurre berriaren bi herenek (eremu mistoa) erabilera publikoa izango dute: 155.893 m²-ko eremu askea eta zuzkidura publikoetarako 84.936 m²-ko lur-zatiak. Bertan, hain zuzen ere, arlo guztietako ekipamenduak egingo dira: hezkuntza, osasuna, kirolak eta kultura.

Hasiera batean planean bertan aurreikusitakoaren arabera, 5.800 etxebizitza eraikiko dira. Euretatik, erdiak babestuak izango dira (babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak; eta, euretatik, Visesak 1.043 egingo ditu, gutxi gorabehera). Horrez gain, 201.360 m² eraikiko dira jarduera ekonomikorako. Dena dela, eremuaren garapenaren arabera behin betiko egingo diren etxebizitzaren kopuruaren arabera egokituko dira datu horiek.

Bestetik, mugikortasuna ere landuko da, eta oinezkoei, txirrindulariei zein garraio publikoari emango zaie lehentasuna. Halaber, eremuaren beraren oroimenari ere eutsiko zaio: bizitegia, industria eta portua. Hori dela eta, bizitzeko (eraikitako era guztietako etxebizitzetan), lan egiteko (hiriko parke teknologiko berritzailean) eta gozatzeko (lekuaren ezaugarri fisikoak kontuan hartuta, aisialdi, kirol zein kultura arloan garatutako gune eta ekipamenduetan) lekua izango da auzo berria.

Proiektuak badauzka HIPBren behin betiko onespina eta AI1 jarduketa integratuaren HJPren behin betiko onespina. EU1 egikaritze-unitatearen kontzertazio-hitzarmena 2013ko urrian onetsi zen behin betiko.

2015eko ekainean Eremu Mistoko AI 1eko SI-3, SI-4 eta DB-1 lurzatiak besterentzeko lehiaketaren iragarkia argitaratu zen; lurzatiok Jaureguizar enpresari adjudikatu zizkioten iraillean. Aldi berean, 2015eko iraillean, ofizialki inauguratu eta oinezkoentzat ireki zen Frank Ghery zubia.

Udaleko gobernu-batzarrak AI 1eko EU1en birpartzelazio-proiektua behin betiko onestea erabaki zuen 2015eko abenduaren 16an. Onarpena 2016ko urtarilaren 8ko BAO'n argitaratu zen eta inskripzioa 2016ko uztailaren 28an egin zen.

2016ko uztailaren 27an, UE1 urbanizatzeko proiektuak hasierako onespina lortu zuen. Behin betiko 2017ko lehen hiruhilekoan onartuko dela aurreikusi da.

2016ko abenduan, San Inazio auzoa eta Zorrotzaurre lotuko dituen San Inazio zubia eraikitze lanak lehiaketara atera zituen Visesak.

Visesako etxebizitzak 1EUn, barrutien arabera

	Etxebizitzak guztira	Tipologia		
		BOE	PTE	EA
San Inazioko barrutia	258		258	
Deustua Bekoko barrutia	341	111		230
Deustuko Erriberako barrutia	69	24	45	
Zorrotzaurreko Erriberako barrutia	119		51	68

Visesako etxebizitzak 2EUn+2JIn

	Etxebizitzak guztira	Tipologia		
		BOE	BOE	BOE
Deustuko Erriberako barrutia	180	72	37	71

Etxebizitzaren kopuruari buruzko datuak eguneratuta daude, lur-birzatiketarako onartutako proiektuko datuen arabera
BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **PTE:** prezio tasatuko etxebizitza - **EA:** etxebizitza askea

2.4.3. Galindo ibarra

“Galindo ibarra” bizitegirako hiri-lurzoruko gunea Sestaoko Plan Nagusian hiri-lurzorutzat hartutako eremuan dago kokatuta, eta erdialdea du mugakide.

Gaur egun, udalerriko gune honetako hondamen sozio-ekonomikoa oso nabaria da, eta oinarrizko hiri-zerbitzuak ere oso urriak dira. Eremuaren izena “Erdialdeko zabalgunea. Galindo ibarra” da, eta hirigintzako ezaugarriak 2003. urtean onartutako “Sestaoko HAPNren unean uneko aldaketa iparraldeko industrialdean” agirian zehaztu ziren.

Indarreko plangintzak bizitegi-eremu hondatuak berregituratzea, birmoldatzea eta zaharberritzea dauka helburu: Simondroga-seko gunea eta Rivas kaleko eraikuntzak. Era berean, sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua ere sustatuko da. Guztira, 1.351 etxebizitza egingo dira bertan, Sestaoko biztanleen ahalmen ekonomikoaren arabera prezio eskuragarriko etxebizitzak sortzeko eta zaharberritu beharreko gunetako egoiliarrentzako etxebizitzak eraikitzeko.

Bizitegi-eremu hori antolatzeko proposamenean, aitortu egiten da Sestaoko Kale Nagusia luzatu beharra dagoela multzo osoaren ardatz egituratzailer moduan. Horrela, bada, hiri-bidea sortuko da, eraikinak egongo dira albo bietan eta kokaleku berria udalerriko erdialdearekin geratuko da lotuta, ibilbide osoan multzoaren kontzeptua galdu gabe.

Galindo ibaiaren parean, oinezkoentzako pasealekua dago, erriberako bi guneak lotzen ditu eta atsedenerlekua ere bada aldi berean. Eremua bi egikaritze-unitatetan dago banatuta: 1EU eta 2EU.

Hirigintzako Jarduketa Programa eta EU1 behin betiko onetsita daude; bertan, guztira 328 etxebizitza eraikiko direla xedatuta dago. Urbanizazio-proiektua eta birpartzelazio-proiektua behin betiko onetsita daude, eta deskontaminazio-lanak ere burutu egin dira.

2014an, EU1 urbanizatzeko obren lehen fasea bukatu zen eta Valeriano Urrutikoetxea SAUri adjudikatu zizkieten 58 ES, 52 BOE eta alokatzeko 53 BOE eraikitzeko obrak. 2015eko urtarilean obren hasierako akta egin zen, eta 2017. urtearen bukaeran amaituko direla aurreikusita dago.

2016ko ekainaren 16an, San Frantzisko landa egokitze obrak gauzatzeko lizitazioa atera zen. 2016ko abuztuan Bycam enpresari esleitu zitzaion proiektua eta obrak 2017ko ekainean amaituko direla aurreikusi da.

	Etxebizitzak guztira	Tipologia			
		BOE	ES	PTE	EA
1. faseko 1EU	163	52 (BOEa) + 53	58		
2. faseko 1EU	165	105		60	
2EU	1.023	195	78	345	405
Guztira	1.351	405	136	405	405

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza - **EA:** etxebizitza askea



2.5. LURZORUEN ZORROA

Hona hemen urbanizatu gabeko edo azterketapeko lurzoru gordinak eta eraikiko diren etxebizitzak kopurua, gutxi gorabehera.

ARABA

Sustapena	Udalerria	Etxebizitzak guztira	Tipologia				
			BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Amurrio	Amurrio	56	56				
Amurrio	Amurrio	28	28				
Amurrio	Amurrio	42	42				
Gasteiz-Salburua	Gasteiz	128	128				
Gasteiz-Salburua	Gasteiz	128	128				
	Guztira	382	382				

BIZKAIA

Sustapena	Udalerria	Etxebizitzak guztira	Tipologia				
			BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Bolueta 2. FASEA	Bilbo	144	54			90	
Bolueta 3. FASEA	Bilbo	175				103	72
Galindo ibarra 1EU 2. FASEA	Sestao	165	105			60	
Galindo ibarra 2EU	Sestao	1.023	195		78	345	405
Zorrotzaurre-Erribera ZZ	Bilbo	119				51	68
Zorrotzaurre-San Inazio 1EU	Bilbo	153				153	
Zorrotzaurre-Deustuko Erribera 1EU	Bilbo	119	24			45	
Zorrotzaurre-Deustua Bekoa 1EU	Bilbo	230					230
Zorrotzaurre 2EU, 2JI	Bilbo	143	35			37	71
Portugalete	Portugalete	35	35				
Sestao-Kueto	Sestao	48	48				
Sestao-Kueto	Sestao	32				32	
Getxo-Venancios	Getxo	54	54				
Getxo-Sarrikobaso	Getxo	53	53				
Iturrigorri-Peñaskal	Bilbo	85			85		
	Guztira	2.528	603	0	163	916	846

GIPUZKOA

Sustapena	Udalerria	Etxebizitzak guztira	Tipologia				
			BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Arrasate 216	Arrasate	216		216			
Azkoitia	Azkoitia	110	110				
Pasaia Luzuriaga	Pasaia	73			73		
Antondegui-Donostia	Donostia	789	789				
Antondegui-Donostia	Donostia	321				321	
Eibar Egazelai	Eibar	42					42
Eibar Bolingua	Eibar	59	59				
Eibar Bolingua	Eibar	78	78				

Sustapena	Udalerria	Etxebizitzak guztira	Tipologia				
			BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Tolosa-Amaroz	Tolosa	150					150
Oiartzun-Arragua	Oiartzun	164	164				
Oiartzun-Arragua	Oiartzun	48			48		
Bergara	Bergara	104	104				
Bergara	Bergara	20				20	
Errenteria	Errentaria	60	60				
Zumaia	Zumaia	137	53	42	42		
	Guztira	2.371	1.417	258	163	341	192

EAE guztira

LLHH	Etxebizitzak guztira	Tipologia				
		BOE	BOEa	ES	PTE	EA
ARABA	382	382				
BIZKAIA	2.528	603	0	163	916	846
GIPUZKOA	2.371	1.417	258	163	341	192
EAE guztira	5.281	2.402	258	326	1.257	1.038

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza - **EA:** etxebizitza askea

LANDA-LURZORUA

Lurzorua	Udalerria	Hektareak
Zestoa-Iraetako ibarra	Zestoa	26 Ha landa-lurzoru
Ondarroa-Aieri	Ondarroa	1,6 Ha landa-lurzoru, indibisoan, Larrain higiezinaren agentziarekin

2.6. SUSTAPEN-ZORROA

2017-2018. Emateko aurreikusita (eraikitzen):		792 etxebizitza
2017an emateko aurreikusita:		450 etxebizitza
- Leioa-Leioandi:		108 BOE
- Leioa-Leioandi:		96 BOE
- Eibar:		62 BOE
- Irun-Oiñaurre:		48 BOE + 16 BOEa
- Hernani		74 BOE
2018an emateko aurreikusita:		342 etxebizitza
- Morlans-Donostia:		70 BOEa
- Bolueta-Bilbo:		108 BOE
- Bolueta-Bilbo:		63 ES
- Leioa-Leioandi:		101 ES

2016. Obra adjudikatua daukaten lizitazioak + aribidean dauden lizitazioak:	194 etxebizitza
--	------------------------

Obra adjudikatua daukaten eta 2017an eta 2018an emango ez diren lizitazioak:	0 etxebizitza
---	----------------------

Obra adjudikatzeko aribidean dauden lizitazioak:	194 etxebizitza
- Ortuella:	84 ES
- Basurtu:	78 BOE
- Santurtzi:	32 BOEa

2017. Aurreikusitako obren lizitazioak:	497 etxebizitza
- Bolueta:	190 PTE
- Portugalete:	32 BOE
- Basauri-Sarratu:	65 BOE
-Txomin Enea:	130 BOE
- Azkoitia:	16 BOE + 14 ES
- Zarautz:	20 BOE + 30 PTE

2016. Proiektua idazteko fasean:	1.384 etxebizitza
- Barakaldo:	85 BOE
- Barakaldo:	72 BOE
- Mundaka:	24 BOE
- Zarautz:	20 BOE + 30 PTE
- Bilbo-Zorrotzaurre:	104 PTE
- Bilbo-Zorrotzaurre	104 BOE
- Portugalete:	35 BOE
- Basauri-Sarratu:	65 BOE
- Azkoitia-Floreaga	16 BOE + 14 ES
- Bolueta:	190 PTE
- Getxo Venancios:	54 BOE
- Getxo Sarrikobaso:	53 BOE
- Leioa Txorierri:	40 BOE
- Leioa Txorierri:	40 PTE
- Tolosa:	106 BOE
- Tolosa:	36 PTE
- Txomin Enea:	130 BOE
- Txomin Enea:	102 BOE
- Santurtzi:	64 BOE

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

2.7. ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO RENOVE PLANA

Gaur egun, adostasun sozial handia dago hirigintza-kulturaren aldaketa sustatu eta lehendik dauden eraikinen eta eremu sendotuen zaharberrikuntzaren, berziztapenaren eta biziberrikuntzaren alde egin beharra dagoela adierazten denean, oinplano berriko eraikuntzen hazkuntza eta hiri-hedapena alde batera utzita.

Visesak esperientzia eta egikera handiak dituen, funtsezko eragilea izan behar da hiria zaharberritzeko, berritzeko eta biziberritzeko estrategia berri hori sustatzeko eta gauzatzeko orduan. Izan ere, benetako proiektuak jarri behar ditu abian, bide berri horretan aurrera egin ahal izateko.

Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana 2020ko Europa Estrategiaren barruan dago kokatuta, eta karbono gutxiko ekonomia bultzatzen du, honako konpromiso hauek betetzen dituena: CO2 igorpenen % 20ko murrizketa, energiaren kontsumoaren % 20ko murrizketa eta energia berriztagarrien erabilaren % 20ko gehikuntza.

Hona hemen bere helburu nagusiak: etxebizitzak zein eraikinen eraginkortasun energetikoa handitzea, irisgarritasunaren baldintzak hobetzea, kohesio soziala indartzea eta enpleguaren sorrera suspertzea.

Lehendik dagoen parkeak badu gabeziarik, irisgarritasuna, alegia. Eraikinen % 34 baino ez dira irisgarriak, eta % 24k bakarrik dute igogailua, 2011ko Erroldako datuen arabera. Hori dela eta, hiria zaharberritzeko politika berria ezarri beharra dago, etxebizitzak, eraikinak eta ingurunea irisgarri egiten laguntzeko. Izan ere, argi eta garbi dago hobekuntza horiek adinekoen eta mugikortasun-arazoak dituztenen eguneroko bizimoduaren onerako direla.

Era berean, gogoan eduki beharra dago gizarte-arloari begira zaurgarriak diren hiri-gune hondatuetakojarduketak kohesio soziala suspertzen duela eta, horren ondorioz, gune horiek lotzen dituela herri edo hiri guztiekin.

Hori dela eta, zaharberrikuntzarako politika berriak ikuspegi integratua hartu beharko du kontuan, eta, eraginkortasun energetikoa zein irisgarritasun unibertsala hobetu ez ezik, laguntasun soziala bultzatu ere egin beharko du.

Azkenik, zaharberrikuntzak hurbileko enplegu-eskaria areagotzen duenez, garrantzi handia dauka tokiko mikroenpresa nahi enpresetan, eta bere maila oso handia da ekonomia emankorra suspertzeko eragin biderkatzailean. Hartara, Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Plana 2013-2016ko Enplegua Suspertzeko Programan zehaztutako sei lerro estrategikoetako da.

2.8. EUSKOREGITE

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Eraikinen Azterketa Teknikoa arautzen duen dekretua aldatzeko maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretua onartu ostean, 2014ko ekainaren 2an **EuskoRegite** plataforma jarri zen abian.

EuskoRegite EAEko Eraikinen Azterketa Teknikoaren Erregistrarako plataforma da Interneten. Gobernuak ezarritako plataformak eraikinen jabeek lagundu nahi die EAT egiteko betebeharra betetzen; eta udalei, Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT) kudeatzen eta kontrolatzen. Plataforman sartzeko, www.euskoregite.euskadi.eus webgunera jo besterik ez dago.

EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen erregistroa indarrean sartu zenetik 2016ko abenduaren 31ra arte 4.844 telefono-kontsultari eta 5.128 mezu elektronikori eman zaie erantzuna. Partikularrek, udalek, arkitektoek, aparejadoreek eta abarrek egindako kontsultak izan dira.

EuskoRegitearen webaren ingurunean, udalentsako RECITE eremu pribatua dago, eta, bertan, EAEko udalek eraikinen azterketa teknikoak bildu, aztertu eta inskribatu egingo dituzte. Era berean, RECITE bertan erregistratuko dira herritarrek (teknikariak izan nahiz izan ez) eta EAEko udaletako EATetako langileek egindako kontsulta guztiak.

2014ko ekainean plataforma abian jarri zenetik, herritarrek eraikinei buruzko ohartarazpenen 951 kontsulta egin dituzte, eta udalek 7.170 EIT erregistratu dituzte guztira.

EuskoRegite plataformako atentzioa ez ezik, Eusko Jaurilaritzari elkargo profesional eta udalentsako zenbait aurkezpen eta prestakuntza-ekintzatzen lagundu diogu, Eraikinen Azterketa Teknikoari buruz ezarri beharreko arautegia eta Eraikinen Azterketa Teknikoaren informazio eta kudeaketarako EuskoRegite atari informatikoa zabaltzeko.

Udaletan prestakuntza-ekintzak 2016ko ekainean amaitu ziren. Aurreikusi denez, EuskoRegite datu-basea 2017ko apirilaren 1ean gaurkotu ondoren ekingo zaio berriro prestakuntzari.

Teknikariak eraikinen Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskapen teknikoko programa berria (3.0 bertsioa) abiatzen denean

hasiko dira berriro prestakuntza jasotzen, eta hori 2017ko martxoaren 1ean izango dela aurreikusi da.

MBN Comunicación enpresak lagunduta, bi gida grabatu dira (REMITE eta RECITE), euskaraz zein gaztelaniaz. EuskoRegiteren webgunean esekita daude, udalen eremu pribatuan, "Laguntza" fitxan.

Eusko Jaurlaritzaren eta EJI Eren (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) web zerbitzuaren bidez, ".net" domeinuaren ordez ".eus" ipini da eta plataforma EJI Era migratzeko lan egiten ari da. Domeinua www.euskoregite.euskadi.eus bihurtu ostean, Eusko Jaurlaritzaren posta gaitu da, helbide honekin hain zuzen: euskoregite@euskadi.eus.

Eusko Jaurlaritzaren Komunikazio Sailak EAEko udal guztiei "Zaindu zure etxearen osasuna / EIT-a, pausoz pauso" liburuxka, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak editatua, bidali die, herritarrei Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egitearen garrantzia jakinarazteko eta horretaz kontzientziatzeko.

Liburuxka bera, posta elektronikoz, arkitektoen eta arkitekto teknikoen lurralde-ordezkaritzei bidali die, baita finken administratzaile leen kidegoei eta higiezinaren jabetzako agenteei ere, haiek banatu dezaten.

2016ko urtarilaren 18an, EITen udal-kudeaketarako aplikazio berria, REMITE izenekoa, abian jarri zen. 2016an zehar, honako lan hauek burutu dira:

1. "ITE País Vasco" programaren 3.0 bertsioa.
2. Hobekuntzak EuskoRegiten.
3. EITari buruzko dekretu berria Sailean izapidetzeko aurkeztea.
4. Datu-basea gaurkotzea. EAEko udal guztietara Excel dokumentu bat bidaltzea, 2018ra arte EIT eginda izan behar duten bizitegi-erabilerako eraikinen zerrenda jasotzen duena.

Web inkesta. Inkesta hori udal teknikariei zein EIT egiten duten profesionalei dago zuzenduta, eta EuskoRegiteren zerbitzua hobetzea eta EITrekin zerikusia duten legezko alderdiak eta kontu teknikoak antzematea da bere helburua.

2017an herritarrei komunikatzeko ekintzak egingo dira, eraikinen jabeen kontserbazio-betebeharrak ezagutarazteko eta birgaitzeko laguntzen arloan dauden mekanismoen berri emateko asmoz, hori bultzatzeko eta herritarrek EIT eta, hala badagokio, kasuan kasuko irizpenen ondoriozko obrak egiteko betebeharra betetzen laguntzeko helburuarekin.

2.9. BERRIKUNTZA ETA JASANGARRITASUNA

Visesak egunez egun lan egiten du, etxebizitzaren eraikuntzako erreferentzia izateko eta zeregin hori ingurumena eta, batez ere, herritarrek edozein ikuspuntutatik zaintzen dituen ikuspegi berritzaile bezain jasangarritik betetzeko.

Gizartearen zerbitzura dagoen enpresa publikoa denez, eraikuntzaren sektoreko berrikuntza eta kalitatea sustatzea da bere egin-kizunetako bat. Horretarako, zenbait jarduera garatzen ditu, kudeaketaren arloan nahiz produktuaren berrikuntzan sustatzeko.

Visesako Berrikuntza Politikak **sektoreko kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea** dauka helburu, EAEko eraikuntzaren sektoreko lidergo-posizioaren bila. Nabarmendu egin beharra dago Visesak Europar Batasuneko I+G+b-ko esparru-programetako zenbait lankidetzaproiektutan parte hartzen duela.

Garatutako proiektuek zeresan handia izan dute herritarren bizimodua sustatzen eta hobetzen duten etxebizitzaren sorreran, eta funtsezko hiru ardatzetan oinarritutako hiri-etxebizitzak kudeatzeko eta eraikitze teknika berrien erabilera bultzatu du: industria-lizazioa, eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna.

Hurrengo urteei begira, Visesak zenbait arlotako proiektuetan lan egiten jarraituko du, aipatutako helburuak betetzeko.

Hona hemen Visesak berrikuntzaren arloan landutako proiektuak:

INDUSTRIALIZAZIOA

65 BOE Hondarribian. Visesak zurezko eta eraginkortasun energetiko altuko sistema industrializatueta oinarritutako sustapen horretako obrak hasi ditu (ia energia-kontsumorik ez duen eraikina). Obrak martxan daude eta 2017. urtearen amaieran bukatuko direla aurreikusi da.

I+G+b-ko 7. ESPARRU PROGRAMAK FINANTZATUTAKO PROIEKTU EUROPARRAK

PIME's: Energiaren sektorean bertan, egikera onaren eredua izan nahi du jasangarritasun energetiko eta sozialaren arloan, erkidegoak garatzeko orduan (informazio gehiago: www.pimes.es).

OSIRYS: Materialen arlo tematikoarekin dauka zerikusia (NMP), eta ekomaterialak eta bioerretxinan zein biozuntzetan oinarritutako produktuak garatzea dauka xede, barruko aldeko airearen kalitatea eta itxituren "arnasgarritasuna" hobetzeko. Garatutako produktuak VISESA Morlansen eraikitzen ari den sustapenean (70 BOEa) instalatzen ari da (informazio gehiago: <http://osirysproject.eu>).

HORIZON 2020 I+G+B ESPARRU-PROGRAMAK FINANTZATUTAKO EUROPAKO PROIEKTUAK

FosterREG: H2020-EE-2014-3 deialdiko proiektua. Hauxe da haren helburua: "administrazioaren maila guztien (birgaitzeko hirigintza-sozietateak, eskualdeko administrazioa/sustatzailea, eskualdeko energia-agentziak) arteko gaikuntza, koordinazioa eta lankidetzaren erraztea, energia-birgaitzearen eta hiri-berronartzearen arloan erabakiak hartzeko katean oztopoak ezabatzeko asmoz" (informazio gehiago, hemen: www.fosterreg.eu).

SmartEnCity: Proiektu handinahia, "Hiri eta Erkidego Adimentsuak" Europako programan kokatua (SCC1-2015-H2020 deialdia). Horren arabera, Gasteiz, Tartu eta Sondeborg hiriekin batera, "faro-hiria" izango da, eta bertan eraginkortasun energetikoaren, garraioaren eta IKTen inguruko irtenbide batzuk aplikatuko dira, modu integratuan eta herriarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Gasteizen kasuan, VISESA proiektuaren koordinatzailea da eta energia-birgaitzean aurreikusitako ekintzak zuzentzen ditu. Helburua gutxienez 750 etxebizitza birgaitzea da, guztira 1.313 etxebizitza dituen bost etxaditako eremuan, Koroatze auzoan (informazio gehiago: www.vitoria-gasteiz.org/coronacion; www.smartencity.eu).

HIRI-GARAPEN JASANGARRIAK

65 BOE Hondarribian. Visesa sustapen honetako proiektua ari da garatzen, eta egurrean oinarritutako sistema industrializatueta eta eraginkortasun energetiko handian (ia-ia energiari kontsumitzen ez duen eraikina) dago oinarrituta.

361 etxebizitza babestu Boluetan (Bilbo). Sustapena diseinatzeko orduan, eraginkortasun energetikorako Passivhaus estandarra bete da.

Visesaren esperientziaren adierazgarri, hona hemen garatutako zenbait ekimen eta proiektu nabari:

INDUSTRIALIZAZIOA

2004. Etxebizitza-eraikinetako egitura-sistema aurrefabrikatuak ikertzea eta Zabalganako 156 etxebizitzako sustapenean ezartzea. Pich-Aguilera Arkitektura Taldeari esleitutako beka. 2009an amaitutako obra.

2010. Altzairuan oinarritutako industrializazioari buruz aztertzea. Arcelor-LKS Ingenieria-Tecnaliaren laguntzaz garatutako azterketa estrategikoa. Horri esker, Euskadin garatu beharreko etxebizitza babestuen sustapenean altzairuzko eraikuntza industrializatua ezartzea bideragarria zen ebaluatu ahal izan zen.

2011-2012. EHUrekin hitzarmena sinatzea, etxebizitzako industrializatua aztertzeke, zabaltzeke eta ikertzeke,

Visesako sustapenetan ezartzeko proposamenak kontuan hartuta. IDFABRIK: hitzarmenaren esparruan garatutako argitalpenan, babestutako etxebizitzaren industrializazioaren gaur egungo egoera aztertzen da, baita garatutako ikerlaneko emaitzak ere.

2013. Industrializazioan eta eraginkortasun energetikoan oso-osorik **aurrera egitea**, eraikinaren bizi-ziklo osoaren azterketa kontuan hartuta eta azterketa teorikoa etxebizitzaren sustapenetan ezarrita. Hormigoian garatutako esperientzien ostean, beste material batzuetan oinarritutako industrializazioa aztertu da; esate baterako, egurra eta altzairua.

2014. la energia-kontsumorik ez duten eraikinen proiektua. Visesa Hondarribian 65 BOE sustatzeko proiektua garatzen ari da; zurezko eta eraginkortasun energetiko altuko sistema industrializatueta oinarrituta dago.

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA ERAIKINEN JASANGARRITASUNA

1998. urtetik aurrera. Arautegiari 10 urtean aurrea hartuta, **Visesak % 30eko gutxieneko aurrezki energetikoa ziurtatu zuen bere eraikin guztietan, kalitate-berme moduan.** Beraz, kalifikazio energetikoak C mailakoak edo hortik gorakoak ziren.

2002. urtetik aurrera. Eguzki-energia termikoaren instalazioak. Arautegiari aurrea hartuta, Visesak eguzki-hargune termikorako hodi biltzaileak ezarri zituen bere sustapen guztietan, kontsumorako ura aurretiaz berotzeko eta, gutxienez, ur bero sanitarioako beharrezko urteko batez besteko energia guztiaren % 60 hornitzeko (arautegiaren arabera, % 30ekoa da).

2004-2006. Eraikuntza Jasangarriaren Gida. Eusko Jaurlaritzak eta Visesa zein lhobe sozietate publikoek EEERen eta Orubideren laguntzaz egin zuten gida hau, EAEko etxebizitzaren eraikuntza jasangarriko oinarri teknikoak zehazteko.

2005-2008. Zaingune proiektu teknologikoa. Gaitek (Eusko Jaurlaritza) eta Profit (Industria Ministerioa) programek emandako finantziarioari esker, ingurumen-adimeneko software-produktua garatu zen, etxeko elementu domotikoak, sentzorialak eta jarduketakoak kontrolatzeko eta, horren bidez, elbarri fisikoei edo adinekoei laguntzen dieten asistentzia-zerbitzuak eskaintzeko. Salburuako 156 etxebizitza sozialeko sustapeneko etxebizitza egokitan ezarri zen.

2005-2009. EHUREkin garatutako lankidetzak, galdaretako CO₂ igorpenen murrizketa ikertzeko.

- EFICAIND (2005). Gas bidezko banakako horma-galdaretako CO₂ igorpenen murrizketari buruzko ikerketa.
- EFICACENT (2006-2009). Bizitegi-erabilera galdara zentralizatueta CO₂ eta NO_x igorpenen murrizketari eta errendimenduaren hobekuntzari buruzko ikerketa.

2010-2011. Baterako mikrosorkuntzan oinarritutako eraginkortasun handiko sistemak ezarri ziren Salburuako 242 etxebizitzako eta Laudioako 103 etxebizitzako sustapenetan.

2013. EHUREkin garatutako lankidetzak (Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa), etxebizitzaren eraginkortasun energetikoak aurrera egiteko, obra berriko zein zaharberrikuntzako **aire-infiltrazioak aztertu** ondoren.

2010-2013 Eraikinen jasangarritasuna ebaluatzeko metodologia. OPENHOUSE Europako proiektuaren eremuan, FP7ren ingurumenaren atalean, VISESAk parte hartzen du metodologia garden eta bateratua garatzeko prozesuan, Europa mailan eraikuntzako jasangarritasunaren etiketak lortzeko (informazio gehiago: www.openhouse-fp7.eu)

2014. Eusko Jaurlaritzako Laborategiaren lankidetzak 2008 eta 2014 bitartean agiri publikoan agerrarazitako VISESAko 25 sustapenetako (guztira, 3.390 etxebizitza) eraginkortasun energetikoaren maila zehazteko eta etorkizunean kostu-eraginkortasunari buruzko irizpideak kontuan hartuta eraikitze gomendioak egiteko helburuarekin.

2010-2015 Eraginkortasun energetiko altuko komunitatei buruzko proiektuen erakusketa:

Europako Batzordeko Energia atalak garatzen duen CONCERTO ikerketa egiteko ekimeneko PIME's Europako proiektuaren eremuan, VISESAk eraginkortasun handiko kontzeptuak eta teknologiak aplikatu ditu Gasteizko esku-hartze bietan. Lehenik, eraginkortasun handiko 171 etxebizitza sozial eraikiko dira Salburuan; eta bigarrenik, 30 etxebizitza birgaituko dira Zaramaga auzoan, hor ere, asmo handiko helburuak lortzeko, energia-eraginkortasunari dagokionez. Proiektu horren helburua energiaren sektorean bertan, egikera onaren eredua izatea da jasangarritasun energetiko eta sozialaren arloan, erkidegoak garatzeko orduan (informazio gehiago: www.pimes.eu).

HIRI-GARAPEN JASANGARRIAK

2005-2010. Tetraener-Antondegia (I+G-ko 6. Programa). EEEk zuzendu zuen, eta energiaren ikuspegitik oso eraginkorrak ziren bizitegi-garapenak egin ziren Donostia-Antondegian eta Genevan. Hirigintza-prozesuko atzerapenen ondorioz, Antondegiko egiaztapen-lanak ezin izan ziren proiektuaren epean betearazi.

BESTE EKIMEN BATZUK

2001-2002. XXI. Arkitektura Lehiaketa. Visesak antolatu zuen, etxebizitza sozialaren, arkitekturaren eta ingurumenaren arloko ikerketa sustapenetako errealitate fisiko, ekonomiko eta eraikuntzakoarekin lotzeko. 1. edizioaren helburua Bermeoko 50 BOEko sustapenerako eraikuntza-proiektua eta obren zuzendaritza kontratatzea izan zen. 2. edizioan, ordea, Elgoibarko 100 BOEko sustapenerako eraikuntza-proiektua eta obren zuzendaritza kontratatzea izan zen xedea.

Hona hemen Visesak berrikuntzaren eta kudeaketa jasangarriaren arloan hartutako konpromisoaren ondorioz sortutako lorpenak eta alboko aitortpenak:

KUDEAKETAKO AURRERAKUNTZAK

- 2000.** Kontratistetzako eta obra-zuzendaritzarako prezio-oinarri homogeneousa prestatzea.
- 2002.** EAEko etxebizitza hutsa mugitzeko programa abian jartzea (Bizigune programa).
- 2002.** Kudeaketa estrategikorako sistematikak ezartzea, urte anitzeko plan estrategikoak eta urteko kudeaketa-planak prestatzeko, hedatzeko eta euren jarraipena egiteko.
- 2003.** Visesako Produktu Batzordea abian jartzea, Produktu Politika zehazteko eta berrikusteko eta diseinurako zein eraikuntzarako irizpideak zehazteko eta eguneratzeko (gaur egun, 7. berrikuspina egin da).
- 2002-2005.** Kudeaketa Bikainerako EFQM Eredurako Kudeaketa Sistema diseinatzea eta ezartzea. Prozesukako kudeaketa.
- 2003-2005.** Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumena Kudeatzeko sistema ezartzea, OHSAS 18001 eta ISO 14001 arauen arabera. Kudeaketa-sistemaren politika integratzea.
- 2004-2005.** Pertsonak Kudeatzeko Sistema Integrala ezartzea (Trebetasunen arabeko Kudeaketa Sistema).
- 2004-2005.** Bulegoetan, 5S-en Hobekuntza Metodologia ezartzea (antolamendua, ordena eta garbiketa).
- 2004.** Hasiera batean urtekoak eta gaur egun bi urtekoak diren autoebaluazioak ezartzea eta hedatzea.
- 2005.** Politika teknologikoa zehaztea. Berrikuntza-politika zehaztea.
- 2005.** Organigrama funtzionala alde batera uztea eta prozesukakoa ezartzea.
- 2005.** Proiektukako Kudeaketa Sistema ezartzea, sustapenen plangintzarako eta kudeaketarako. 2014an, Proiektukako Kudeaketa Sistema berrikusi da oso-osorik.
- 2005.** Berrikuntza kudeatzeko hobekuntza-taldea abian jartzea.
- 2005.** Sindikatuekin hitzarmena sinatzea, Eusko Jaurlaritzak eta Visesak sustatutako obren betearazpenaren esparru osoan Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea bete egiten dela ziurtatzea eta jarraipena egitea.
- 2005-2010.** Urte anitzeko hiru Eraikal proiektu sustatzaile zuzentzea, 20 arkitektura-estudiotan ISO 9001 araua, kalitatea, prebentzioa zein ingurumena kudeatzeko sistema integratuak eta ekodiseinuaren araua ezartzeko.
- 2006.** Prozesuen mapa integratua egitea.
- 2007-2011.** Prozesukako Kudeaketa Sistematika berria ezartzea etengabeko hobekuntzari begira. Hobekuntzarako prozesuei buruzko goi-bilerak.
- 2008.** Sozietateetako adierazleen egitura diseinatzea.
- 2008.** Administrazio Kontseiluarentzako hiru hileko txostena zehaztea eta ezartzea.
- 2008.** Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoko Kudeaketa Eredua ezartzea. Bertan, hain zuzen ere, zenbait neurri, arau... zehazten dira, herritarren funtsezko eskubideak babesteko eta bermatzeko.
- 2009.** Urte anitzeko planak zehazteko Euskara Batzordea abian jartzea. 2014an, euskarako hizkuntza-irizpideak zehaztu dira.
- 2010.** Kapitalen Zuriketa Prebenitzeko Eredua ezartzea, Kapitalen Zuriketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatutakoa betetzeko eta terrorismoaren edo delituzko beste jardura batzuen finantziazioan erabiltzea eragozteko.
- 2011.** Gobernu Arduratsuaren Eredua diagnostikoa egitea eta ezartzea, honako honexetan xedatutako eskakizunak betetzeko: "Euskadiko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako gobernu arduratsuaren gida".
- 2011.** Arriskuen Kudeaketarako eta Barne Kontrolerako Eredua ezartzea, antzemandako arrisku nagusiak lantzeko eta kontrolatzeko.
- 2013.** Obrak lizitzatzeko orrietan hobekuntzak ezartzea (esate baterako, eskaintza telematikoen aurkezpena onartzea, azpikontrastisten ordainketa fiskalizatzea, bermeen araubidea eta itzulketa malgutzea...).
- 2014.** Obra lizitzatzeko orriak aldatzea, kontratistek azpikontrastistekin eduki beharreko kontratu-betebeharrak ezartzeko eta or-

dainketa-baldintzak hobetzeko.

- 2014.** Lehenengo Berdintasun Plana egitea.
- 2014.** Visesarren Jasangarritasunari buruzko lehenengo Txostena argitaratzea, GRI metodologian oinarrituta.
- 2014.** Prozesuen Mapa berrikustea eragiketari eta, batez ere, saldu osteko prozesuari begira.
- 2015.** ERP berriro ezartzearekin zerikusia daukaten zenbait sistematika eta lan-fluxu berrikusi dira.
- 2015.** Adjudikazio-formula berriak garatu dira: zuzeneko adjudikazioa, erosteko aukera ematen duen alokairua eta ordainketa geroratuak salerosketa.
- 2015.** Visesarren Gardentasun Ataria argitaratu da.
- 2015.** Visesarren lehen zerbitzu-karta argitaratu da.
- 2015.** Erakunderako negozio-ildo berriak sartu dira: EITen erregistroa, urbanizazioa, lan-arriskuen prebentzioa, oinarritzko proiektuak eta birgaitzeko laguntzetarako birgaitzeko hirigintza-sozietateak.
- 2015.** Ordezkaritzetik izapidetze administratiboko zirkuituak hobetu dira merkaturatzeko eta kalifikazioak lortzeko prozesuak arinagoak izan daitezten.
- 2015.** Enpresak sortzeko, autoenplegurako, etxebizitza bihurtzeko eta gizarte-erakundeei lagatzeko lokalak dinamizatu dira.
- 2016.** Fondo guztiak kanpoko gordailutik Eusko Jaurlaritzaren artxibo nagusira transferitu dira. Aplikazio korporatiboaren bidez atzitu da artxiboa.
- 2016.** Komunikazio-azpiegiturak erabat berritu dira Eusko Jaurlaritzaren kontratu markoari jarraikiz. Horrela, nabarmen hobetu dira zerbitzuen kostua eta kalitatea.
- 2016.** Apirilean, Eusko Jaurlaritzaren elektrizitatearen hornidura-kontratuari atxikitu zaio.
- 2016.** Segurtasunaren Eskema Nazionalari jarraikiz egindako borondatezko diagnostikoan emaitza ona lortu da eta abian jarri dira gomendatutako hobekuntza-neurri batzuk, hala nola segurtasuna hobetzeko proxy bat jartzea.
- 2016.** Posta elektronikoaren segurtasun perimetrala hobetzeko zerbitzu bat ezarri da.
- 2016.** Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidea ezarri da, ordainbide berri bat –online ordaintzea– eskaintzeko.
- 2016.** EuskoRegiteren bidez lortutako datuak ustiatzeko aplikazioa garatu da.
- 2016.** Presentziaren kontrola kudeatzeko aplikazioa ezarri eta martxan jarri da.
- 2016.** EAEDE modalitatea lokal eta garaje libreen kasuetan erabiltzen hasi da.
- 2016.** Visesan BIM teknologia ezartzeko proiektu pilotua garatu da.
- 2016.** Lanetan sexu-jazarpenari eta generoagatiko jazarpenari aurrea hartzeko lehen protokoloa landu eta onetsi da.
- 2016.** Lehen aldiz, azterketa kuantitatiboa egin da VISESaren presentzia Interneten neurtzeko (gizarte-sareak, blogak, foroak, blogak eta albiste digitalak), sare sozialetako estrategia bat prestatzeko lehen urratsa emate aldera.
- 2016.** Arrisku psikosozialak ebaluatzeko lehen inkesta egin da, ISTAS 21 metodoaren arabera.
- 2016.** Barne-prestakuntzako online ikastaroak egiteko tresna (Moodle erabiliz) sortu da.

ZIURTAGIRIAK, AITORPENAK ETA SARIAK

- 2000.** ISO 9001 ziurtagiriaren lorpena kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
- 2003.** COAVNek eraikuntza-obra onenari emandako saria: 168 etxebizitza sozial Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
- 2005.** Zilarrezko Q aitortpena.
- 2005.** ISO 14001 ziurtagiriaren lorpena ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
- 2008.** Zilarrezko Bikain Ziurtagiriaren lorpena euskararen agerpen, erabilera eta kudeaketagatik.
- 2008.** sb08 Melbourne - Sustainable Building Saria Bermeoko 50 BOEko sustapenarentzat.
- 2009.** COAVNeko Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkartek "Hiria, hirigintza eta ekologia" lehiaketaren XI. edizioan Boluetan egin genuen proiektuari eman zion saria.
- 2010.** AEDIPE + Human-Giza Kapitalak pertsonetan oinarritutako berrikuntzan emandako saria, administrazio publikoen kategorian.
- 2013.** Gaztela eta Leongo Juntak Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenari emandako IV. saria, bizitegi kolektiboaren kategoriako eraikuntza jasangarria izateagatik.
- 2013.** Espainiako Arkitektura Teknikoko Kontseilu Orokorrak eraikuntzako segurtasunaren eta osasunaren arloko lidergoari eta berrikuntzari emandako saria, ekimen publiko onenaren kategorian.
- 2013.** Endesak Bermeoko 50 BOEko sustapenari emandako saria higiezinetak sustapen jasangarriena izateagatik.
- 2014.** PIME's A-32 proiektuaren hautaketa jarduera egokiaren eredu moduan, 2014ko Solar Decathlon Europe-ko CECOD-HAS erakusketarako (Versailles).
- 2014.** "Babestutako Etxebizitzako Jarduera Onenen" AVS Saria: Visesak sustatutako babes ofizialeko 242 etxebizitzako proiektua errendimendu handikotzat hartu da eraikuntza jasangarriaren faktore guztietan, eraikinen kontsumoak zeroak direlako ia-ia (NZE) eta kalifikazio energetikoa duelako.
- 2014.** Mutua Saria VI. Edizioko akzesitaren lorpena, Visesak laneko osasunaren zein segurtasunaren arloan garatutako prebentzio eta kudeaketagatik.
- 2014.** "Euskaliteko Club 400ren XI. Topaketako" finalista, nazioarteko PIME's lankidetzako proiektuaren bidez (I+G+b-ko 7. EP) nazioarteko ezarpenean garatutako jarduera onagatik.
- 2014.** Nazio Batuetako Jarduera Egokien Nazioarteko X. Lehiaketa (Dubai 2014). Honako jarduera hau aurkeztu genuen: "BIL-

BO-BOLUETA: PERTSONENTZAKO HIRIGINTZA. Hiria biziberritzea eta ingurune naturala berreskuratzea". BEST ziurtagiria lortu genuen, eta finalisten zerrendan ere sartu gintuzten (SHORT LIST).

- 2015.** Europako Batzordeak VISESari esker onak eman dizkio. 2015eko urtarilean "Green Public Procurement in practice" aldizkarian VISESAk altzari eta sukaldeko ekipamenduen lizitazioari lotuta eta erosketa publiko berdearen arloan burutu zuen jarduera jardun egoki gisa argitaratu zen.
- 2015.** Habitataren Mundu-mailako Eguna (Sustapen Ministerioa) Madril, Jarduera Egokien Nazioarteko Lehiaketaren X. Edizioan (Dubai) parte hartu duten Espainiako Jarduera Egokien azalpenarekin. Bertan, Visesak Boluetako proiektua aurkeztu zuen.
- 2015.** Segurtasun eta Laneko Osasunaren Sarien IV. Edizioa, FSL aldizkaria. Visesak aurkeztu duen proposamenak Laneko Segurtasunaren Kudeaketaren Saria irabazi du eta saria 2016ko otsailean eman da.
- 2016.** Borrmart argitaletxearen saria jaso zuen Visesak, Prebentzioaren eta Lan Arriskuen arloan (Madril, 2016ko otsailaren 24a). Kasu horretan, Laneko Segurtasunaren Kudeaketako saria eman ziguten, Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko sarien IV. Lehiaketa Nazionalan. Estatu mailako sari horiek banatzeko deialdia bi urtean behin egiten du Borrmart argitaletxeak FSL (FORMACIÓN DE SEGURIDAD LABORAL) aldizkariak. Sariak 2010. urtean sortu ziren, "Laneko Segurtasunaren arloan egindako ekarpen goresgarri eta froga daitezkeen merezimenduengatik gehien nabarmendu diren pertsonen eta erakunde publiko zein pribatuen meritua goraiatzeko".
- 2016.** Etxebizitzako Sustatzaile Publikoen eta Lurraren Espainiar Elkartek accesita eman zien VISESAk Gasteizko Salburu auzoan eraiki zituen 171 etxebizitza sozialei, Obra Berriko Eraikuntza Onenaren kategorian (2016ko martxoan izan zen eta saria 2016ko apirilean eman zen).
- 2016.** Otsailaren 24an "LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN IV. SARIAK" eman dira. "Formación de Seguridad Laboral" aldizkariak ematen ditu sariak, aldizkari tekniko independenteak, lan-arriskuen prebentzioaren eta laneko segurtasun eta osasunean espezializatuak.
- 2016.** Visesak, enpresa gisa, aintzatespena jaso zuen ORP Nazioarteko Fundazioaren eskutik, konplexutasun handiko ingurunean lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketagatik (2016ko iraila).
- 2016.** Europar Batasuneko Errentarien Nazioarteko Batasunak banatzen dituen European Responsible Housing Awards, Etxebizitza Arduratsuaren Europar Sarietan, sari berezia lortu zuen Visesak, hain zuzen ere, tokiko jasangarritasun soziala eta giza baliabideen kudeaketa arduratsua bezalako kategorietan finalista izateagatik (2016ko azaroa).

BILTZARRAK

- 2015.** Eraikin Adimendunen II. Biltzarra (Madril, 2015eko urriaren 27a). "Energiaren kudeaketa zentzuduna etxebizitza publikoko eraikinetan; 176 etxebizitza sozialen kasu praktikoa, Gasteizen (Visesa-Eusko Jaurlaritza)" artikulua argitaratzea.
- 2015.** FORAE birgaitze foroa (Madril, 2015eko azaroaren 4a). "A klasea eta autokontsumo fotoboltaikoa 1960. urteko etxebizitza-blokearentzat, Zaramagan (Gasteiz)" artikulua argitaratzea.
- 2016.** Manageable Cooperation? EURAM 2016 BILTZARREAN parte hartu zuen. 2016ko ekainean, hitzaldia Parisen: "The relationship between human capital and the investment in occupational health and safety: an empirical analysis".
- 2016.** ACEDE 2016: ERAKUNDEAK ETA PERTSONAK BILAKAERAN izenburuko BILTZARREAN parte hartu zuen: 2016ko ekainean, hitzaldia Vigon (Espainia): "The relationship between human capital and the investment in occupational health and safety: an empirical analysis".
- 2016.** ERAIKUNTZAKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN II. BILTZARREAN parte hartu zuen. OSALAN
- 2016:** Lan-arriskuen prebentzioko praktika onak eraikuntzan. VISESAk saritua izan zen



3. INTERES-TALDEAK

Hona hemen identifikatutako interes-taldeak:

Akziodunak

- Eusko Jaurlaritza
- Finantza-erakundeak

Bezeroak

- Salmentarako eta alokairurako etxebizitzaren erosleak (etxebizitza babestuak, tasatuak eta askeak; garajeak, trastelekuak eta lokal libreak; jabetza soila).
- Etxebizitza babestu, tasatu, garaje libre edo lokal libre bat errentamenduan hartu duten errentariak, errentamendu-kontratuak erosteko aukera ematen badu.
- Etxebizitzaren jabeak eta jabeen erkidegoak, non zerbitzu energetikoak, bermeak eta mantentze-lanak egiteko zerbitzua Visesak ematen baititu.
- Erakunde eta instituzio publikoak, hala nola Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta lurzorua erosten duten enpresa/erakundeak.

Sozietatea bera eta honako hauexek ere bai:

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
- Etxebizitza Sailburuordetzari atxikitako sozietatea: Alokabide
- Enpresa hornitzaile eta laguntzaileak
- Sozietatearen partaidetza duten elkarteak

Visesako pertsonak

GURE KONPROMISO SOZIALA

Visesak xedean bertan adierazten du konpromiso soziala duela, eta, konpromiso sozial hori enpresen erantzukizun sozialaren (EES) ikuspegitik gauzatzeko, zenbait ekimen jorratzen ditu, kudeaketa gardenaren eta erantzukizunaren helburuan aurrera egiten jarraitzeko:

GARDENTASUN ATARIA

Gardentasun Atariaren bidez, Visesak beste urrats bat eman du herritarren zerbitzura jarduteko konpromisoan: alde batetik, balio publikoa sortuz, eta, bestetik, gardentasun-kulturako eredu bati jarraituz bere eginkizunak gauzatzeko eta erabakiak hartzeko balia bide publikoak erabiltzean.

Sinetsirik dago bere jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio garrantzitsua eta eguneratua aldizka argitaratzeak (publizitate aktiboa) eta informazio-eskaerei erantzuteko herritarren esanetara egoteak (informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eskaerak) herritarrek Visesan duten konfiantza handituko eta sendotuko duela. Era berean, herritarren partaidetzaren kultura sortuko du, beren eremukoak diren gai publikoetan erantzunkide izan daitezen.

JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Jasangarritasunari buruzko Txostena agiri publikoa da, Visesak borondatez eskaintzen du eta, bertan, erakundearen zein bere jardueren berri ematen da gizarte, ingurumen eta ekonomia arloko ikuspegitik. Urtero argitaratzen den balantze finantzarioaren agiri osagarria da, eta proiektuen, mozkinen eta ekintza sozialen berri ematen die akziodunei, bezeroei, pertsonaei, aliatuei eta gizarte orokorrari.

Txostena, berez, erantzukizun sozialari buruzko komunikazioaren oinarria da, eta ezaugarri bereizgarri daukan gardentasunaren printzipioaren adibidea ere bada. Global Reporting Initiativek (GRI) sustatutako eredu nazioartean aitortzen handiena daukan estandarra da, eta Visesaren jasangarritasunari buruzko txostena egiteko hautatutakoa izan da.

Iraunkortasunari buruzko txostenean bildutako datuak 2011-2015eko aldiari dagozkio, eta 2016an burutu da 2. txostenaren azken idazketa. Visesarren konpromisoa datuak eguneratzea eta bi urtean behin argitaratzea da. Iraunkortasunari buruzko txostena argitaratuta dago eta www.visesa.eus webgunean ikus daiteke.

ARRISKUEN KUDEAKETA ETA GOBERNU ARDURATSUA

2009. urteaz geroztik, Visesak "Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako gobernu arduratsurako gida" erabiltzen du erreferentzia moduan. Eusko Jaurlaritzakoa da, eta Kontrol Ekonomikorako Bulegoak (KEB) zuzentzen du. Bertan, zenbait gai aztertzen dira, erakundearen ekonomia, ingurumen eta gizarte arloko kudeaketa eraginkortasunez garatzeko eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) zehaztutako gardentasunaren eta gobernu egokiaren printzipioak betetzeko.

Aldi berean, Visesak honako hauxe ere jarri du abian: "Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako barne-kontrolerako funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua", arriskuak kudeatzeko eta barne-kontrolerako sistema ezartzeko.

Hiru hilean behin, Visesak bi gida horien ezarpen maila jakinarazten dio Kontrol Ekonomikorako Bulegoari.

2013an egindako kanpo auditoretzaren arabera, Visesak gobernu arduratsuari buruzko gidaren % 62,5 bete zuen, eta gainerako erakundeek % 58,66 bete zuten batez beste. Barne-kontrolari buruzko eskuliburuari dagokionez, Visesak lortutako ezarpen maila % 62,25koa zen; gainerako erakundeek kasuan, berriz, % 60,48koa. Ondorioz, hobekuntza-arloak antzemanda, behar besteko Ekintza Plana zehaztu genuen, gida eta eskuliburua betetzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko.

2016an, autoebaluazioa egin genuen gida biekiko posizioa baloratzeko. Horretarako, aintzat hartu zen % 77,5eko aurrerakuntza barne-kontrolari buruzko gida betetzean, eta % 80,7koa, gobernu arduratsurako gidari dagokionez. Horrela, Visesak berretsi egin zuen gai horietan aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa.

KAPITALAK ZURITZEARI AURREA HARTZEA

Apirilaren 28ko 10/2010 Legeak, kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari aurrea hartzekoak, xedatutakoa betetzeko, VISESAk zenbait neurri eta prozedura ezarri ditu, hala nola:

- Barne Kontrol eta Komunikazioko Organoaren (BKKO) sorketa.
- BKKOren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia.
- "Kontrol eta Komunikazioko Barne Prozedurei buruzko Eskuliburua", kapitalak zuritzearekin zerikusia daukaten eragiketarako ezagutzeko, saihesteko eta ekiditeko.
- Bezeroak onartzeko politika.

Eskuliburu eta prozedura horiek ezarrita eta beti eguneratuta daude; hortaz, une oro erantzuten diete VISESAk gauzatutako jarduerari.

BKKOri dagokionez, organo hori 2006ko maiatzaren 2an sortu zuen Administrazio Kontseiluak, bere araudian jasotako eginkizunekin. 2015eko ekitaldian, BKKO behin bildu da eragiketa susmagarri bat aztertzeko; SEPBLACi jakinarazi zion eta ondoren artxibatu egin zen.

Bestalde, Administrazio Kontseiluak, 2015eko martxoaren 31n egindako bilkuran, 2014ko ekitaldiari dagokion kanpo-adituaren urteko txostena aztertu eta baliozkotu zuen eta 2015erako Jarduketa Plana onetsi zuen.

Jarduketa Planean xedatutako ekintza asko ekitaldian zehar ezarri dira; azpimarratzekoak dira bezeroari alta eman baino lehen kontrolatzearen eta terrorista-zerrendak egiaztatzearen automatizazioarekin, bezeroak identifikatzen dituzten agiriak digitalizatzeko prozesuarekin, haien identifikazio formalekin eta pertsona juridikoen benetako titulartasuna ezagutzearekin zerikusia daukatenak.

Azkenik, 2015. urtearen amaieran, hurrengo ekitaldian bezeroari harrera egiteko bulegoetako langileentzako trebakuntza-plan espezifikoak garatzeko izapideak hasi ziren, prozeduretan jasotako errekerimenduak ezagutzea eta aplikatzea errazteko asmoz. Era berean, aipatutako ekitaldiari dagokion kanpo-auditoretza hasi zen.

2017ko otsailaren 24an, 2016ko ekitaldiari dagokion kanpo-adituaren jarraipen-txostena igorri zen. 2017ko martxoaren 29an, Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaio.

4. 2016KO JARDUERA

Txosten honen bidez, Visesak iaz lortutako mugarri garrantzitsuenak eta emaitza esanguratsuenak partekatu nahi ditu bere interes-talde guztiekin.


Gauzatutako jarduera 2016an proiektua edo eraikuntza garatzeko lizitatutako etxebizitzetan islatu da, baita gaur egun proiektua idazteko fasean edo obra egikaritzeko fasean dauden etxebizitzetan ere (2.600 baino gehiago). Gure jardueraren garapenean inbertituz, ekonomiaren sektore hau nabarmen dinamizatzen lagundu dugu.

Nabarmentzekoa da 2016. urtean etxebizitza adjudikatzeko modalitateak sortu eta finkatu direla, hala nola erosteko aukera ematen duen errentamendua, ordainketa geroratuko salerosketa edo zuzeneko adjudikazioa, herritarrei etxebizitzarako sarbidea errazteko xedearekin.

Era berean, hiria berronertzeko proiektu estrategikoetan (Zorrotzaurre, Bolueta eta Vega Galindo), EuskoRegite-ren ezarketan eta berrikuntza- eta iraunkortasun-proiektuetan lan gogorra egin dugu.


4.1. GIZA TALDEA

4.1.1. Organigrama funtzionala




4.1.2. Pertsonen arloko emaitzak


a. Plantillaren banaketa erantzukizunaren arabera




b. Plantillaren banaketa antzintasun-urteen arabera



c. Plantillaren banaketa adinaren arabera



d. Plantillaren banaketa kontratu motaren arabera



4.1.3. Berdintasuna, osasunaren prebentzioa eta lan-segurtasuna

Berdintasuna, osasunaren prebentzioa eta lan-segurtasuna 2016. urtean, gure jardueran genero-ikuspegia ezartzeko aurrera egiten jarraitu dugu. Visesak **Berdintasun Planak** 2014-2017 Visesako pertsonen gure eguneroko jardueran genero-ikuspegia sartzea eta aniztasunaren errespetua eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea nahi du.

Horretarako, 2016an, lehen *Sexu-jazarpenari eta generoagatiko jazarpenari aurrea* hartzeko eta horren aurka jarduteko protokoloa onetsi da eta gaiari buruzko ikastaroak antolatu ziren langile guztientzat.

Osasunarekiko eta lan-segurtasunarekiko konpromisoa duenez, Visesak prebentzioari eta laneko segurtasunari buruzko plan bat onesten du urtero. Horren helburua arriskuak prebenitzea eta pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzea da, eta 2016. urtean planaren % 85 bete da.

2016an, bat egiteko prozesua amaituta, lanpostu guztien arrisku-fitxak berrikusi ziren. Gure ustez, arlo honetan erakundeko langile guztiek hartu behar dute parte. Hori dela eta, prebentzioari buruzko prestakuntza egin dugu, lanpostu guztietan egon daitezkeen arriskuez sentsibilizatzeko eta horiek saihesteko.

4.1.4. Komunikazioa, lan-harremanak eta ezagutzaren kudeaketa

Barne-komunikazioa behar bezala kudeatzea beharrezkoa da helburuak zuzen betetzeko eta ildo estrategikoei jarraitzeko. Horretarako, 2016. urtean, jarraitu dugu barne-komunikazioko politikan ezarritako informazioa hedatzeko kanalak erabiltzen:

- Intranet korporatiboa: hedapen orokorreko albisteak zabaltzeko.
- Berezi Bilera: jardueraren jarraipenari, koordinazioari eta antolamenduari buruzko bilerak.
- Sailen aldizkako bilerak: interes orokorreko informazioa arlo mailan helarazteko.
- Zuzendaritza Nagusiarekiko aldizkako topaketak: plan estrategikoaren jarraipenaren, ekintza berrien eta zuzendaritzak zuzentzen dituen proiektuen berri emateko.

Pertsonen eta **lan-harremanen** administrazioari dagokionez, irailaren 1ean Visesak Zuzendaritza Nagusiak eta Visesak Enpresa Batzordeak formalizatutako akordioa nabarmentzen dugu, Visesak Hitzarmen Kolektiboaren testu berria onartzeko.

Prestakuntzaren arloan, 2016an, prestakuntza-plana betetzeko maila % 60koa izan da, jardueren kopuruari dagokionez, baina % 73ra igotzen da, onartu eta burutu baina planean aurreikusi ez diren jarduerak aintzat hartzen baditugu. Batez besteko ordu kopuruari dagokionez, urteko 85 ordu izan dira pertsona bakoitzeko. Gizonezko guztiek zein emakume guztiek prestakuntza jaso dute Visesak egun dituen eta etorkizunean izan ditzakeen beharrei erantzuteko. Visesak ahalegin handiak egiten jarraitzen du bai berriazko gaitasun teknikoak bai kudeaketa-gaitasunak garatzeko, eta horretarako, enpresako talde guztien beharrak eta plana betetzearen jarraipena aztertzen ditu urtero.

2015-2017 aldian, eta enpresan **euskararen erabilera lagundu eta sustatzeko**, Visesak bultzatu eta babestu egiten du euskara ikastea. Horregatik, aurreko urteetan bezala, trebakuntza-ekintzak garatu dira; erakundeko pertsonen % 43k parte hartu dute. Era berean, sail guztietan azterketa bat egin da, bakoitzaren egoera ezagutzeko, euskara lan-esparruan erabiltzeko bidea emate aldera.

2016. urtean zehar, Hasi-Hazi proiektua abiarazi dugu, oinarriko **giltzarri kulturalak** jakinarazteko, funtsezkoak baitira plan estrategikoa behar bezala garatzeko. Zuzendaritzak gidatutako proiektuan, erakundeko langile guztiek hartu dute parte.

2016. urtean, **gazteei lan-merkatuan sartzen laguntzen jarraitu dugu**; oraingo honetan, bi pertsonak 12 hilabetez parte hartu dute, Novia Salcedo fundazioaren bidez, Bezeroarentzako Arreta eta Merkataritza Kudeaketako Sailean eta Sail Teknikoan, hurrenez hurren.

4.2. JARDUERA-EMAITZAK

4.2.1. Hiria berroneratzeko proiektu estrategikoa

Bolueta

Boluetako birpartzelazio-proiektua (27. egikaritze-unitatea, Bolueta), Visesar ondoriozko zazpi lurzati esleitu zizkiona, behin betiko onetsi zenetik eta urbanizazio-proiektua behin betiko onetsi zenetik, eremua urbanizatzeko obrekin jarraitu da, eta 2017ko irailean bukatuko direla aurreikusita dago.

1. faseko eraikuntza-obrak (63 ES + 108 BOE) Construcciones Sukia Eraikuntzak SAr adjudikatu zizkieten 2015eko martxoan. 2018ko lehen hiruhilekoan bukatuko direla aurreikusi da.

Zorrotzaurre

Zorrotzaurreko eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) 2012ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onartu zen behin betiko.

HJPko agiria behin betiko onartu eta 2013ko urriaren 8ko 193. BAOn argitaratu zen.

Gainera, 2012ko azaroaren 26an, Saitec, S.A. enpresari esleitu zitzaion Zorrotzaurreko eremu mistoko 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitatearen Urbanizaziorako Proiektuaren idazketa. Halaber, 2013ko urtarrilaren 11n, laguntza teknikorako lehiaketa esleitu zen, Zorrotzaurreko eremu mistoko gunen zabalen Urbanizaziorako Aurreproiektua eta Zorrotzaurreko eremu mistoko 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitateko gunen zabalen Urbanizaziorako Proiektua diseinatzeko eta idazteko.

Proiektuak badauzka HIPBren behin betiko onespina eta AI1 jarduketa integratuaren HJPren behin betiko onespina. EU1 egikaritze-unitatearen kontzertazio-hitzarmena 2013ko urrian onetsi zen behin betiko.

Deustuko ubidea zabaltzeko obrek aurrera egin zuten.

2016ko urtarrilaren 8an, AI 1eko UE1 egikaritze-unitatearen birpartzelazio-proiektua behin betiko onesteko erabakia BAOn argitaratu zen eta inskripzioa 2016ko uztailaren 27an egin zen.

Aldi berean, 2016ko uztailaren 27an, UE1 urbanizatzeko proiektuak hasierako onespina lortu zuen.

Visesak San Inazio auzoa eta Zorrotzaurre lotuko dituen San Inazio zubia eraikitzeko lanak lehiaketara atera zituen. Lizitazioa 2016ko abenduaren 7an izan zen.

Galindo ibarra

Behin betiko onetsita daude Hirigintzako Jarduketa Programa eta EU1, urbanizazio-proiektua eta birpartzelazio-proiektua, eta deskontaminazio-lanak burutu egin dira.

Egikaritze-unitate horretan 328 etxebizitza eraikiko direla aurreikusita dago.

UE1en urbanizazio-obrak bukatu ostean eta 58 ES, 52 BOE eta alokairuko 53 BOE eraikitzeko obrak adjudikatu ostean, 2015eko urtarilean hasierako akta egin zen, eta 2016ko 2. hiruhilekoan bukatuko dira.

2016ko ekainaren 16an, San Frantzisko landa egokitze obrak gauzatzeko lizitazioa argitaratu atera zen. Obrak 2017ko lehen sei hilekoan amaituko direla aurreikusi da.

4.2.2. 2016ko sustapen-jarduera

Proiektua hasita daukaten sustapenak:

- B-058, 104 BOE Zorrotzaurre SI2
- B-094, 104 BOE, Zorrotzaurre DB2
- B-088, 53 BOE Bilbo-Arangoiti

- B-097, 65 BOE Basauri
- B-109, 20 BOE Mundaka
- G-066, 14 ES + 16 BOE Azkoitia-Floreaga
- G-070, 20 ES + 30 PTE Zarautz

Behin-behineko kalifikazioa daukaten sustapenak:

- G-070, 30 BOE Zarautz
- G-070, 20 BOE Zarautz
- G-066, 14 ES Azkoitia-Floreaga
- G-066, 16 BOEeade Azkoitia-Floreaga
- G-064, 130 BOEeade Txomin Enea-Donostia
- G-065, 102 BOE Txomin Enea-Donostia

Obran lizitatutako sustapenak:

- B-090, 78 BOE Basurtu-Bilbo
- B-087, 32 BOE Santurtzi
- B-070, 65 BOE Basauri
- G-095, 48 ES Ortuella
- G-096, 36 ES Ortuella

Obra adjudikatuta daukaten sustapenak:

- G-070, 65 BOE Basauri
- G-063, 70 BOEa Morlans-Donostia

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala
PTE: prezio tasatuko etxebizitza - **BOEeade:** erosteko aukera ematen duen errentamendua

VISESAK GURE ERKIDEGOKO ZENBAIT UDALERRITAN SUSTAPENAK GARATZEN JARRAITU DU. PROIEKTUAK IDAZTEKO FASEAN ZEIN OBRA EGIKARITZEKO FASEAN, 2016AN GUZTIRA 2.647 ETXEBIZITZAKO SUSTAPENEAN LAN EGIN DUGU.

BIZKAIA

- B-043, 108 BOE + 63 ES Bolueta-Bilbo
- B-045, 105 BOE + 58 ES Galindo ibarra-Sestao
- B-046, 127 BOE + 63 BOE Bolueta-Bilbo
- B-058, 104 PTE Zorrotzaurre-Bilbo
- B-065, 65 BOE Basauri-Sarratu
- B-067, 101 ES Leioa-Leioandi
- B-078, 96 BOE Leioa-Leioandi
- B-079, 53 BOE Getxo-Sarikobaso
- B-082, 85 BOE Barakaldo-El Karmen
- B-086, 72 BOE Barakaldo-El Karmen
- B-095, 48 ES Ortuella-Bilbo
- B-096, 36 ES Ortuella-Bilbo
- B-080, 54 BOE Getxo-Venancios
- B-085, 40 BOE + 40 PTE Leioa-Txorierrri
- B-087, 96 BOE Santurtzi
- B-088, 53 BOE Arangoiti-Bilbo
- B-089, 32 BOE Portugalete-Bilbo
- B-090, 14 EA Basurto-Bilbo
- B-091, 78 BOE Basurto-Bilbo
- B-097, 65 BOEeade Basauri -Sarratu
- B-091, 104 BOE Zorrotzaurre-Bilbo
- B-109, 20 BOE Mundaka

GIPUZKOA

- G-051, 80 BOE + 32 BOEa Irún-Oinarrue
- G-040, 62 BOE Eibar-Egazelai
- G-056, 36 BOE Tolosa
- G-057, 35 BOE Tolosa
- G-068, 35 BOE Tolosa
- G-069, 36 PTE Tolosa
- G-061, 32 BOE + 33 BOEa Hondarribia
- G-058, 53 BOE Zumaia
- G-059, 42 BOEa Zumaia
- G-060, 42 ES Zumaia
- G-63, 70 BOEa Morlans-Donostia
- G-64, 130 BOE Txomin Enea-Donostia
- G-63, 102 BOE Txomin Enea-Donostia
- G-066, 16 BOE + 14 ES Azkoitia-Floreaga
- G-070, 20 ES + 30 PTE Zarautz

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala
PTE: prezio tasatuko etxebizitza - **EA:** etxebizitza askea - **BOEaede:** erosteko aukera ematen duen errentamendua

4.2.3. Sinatutako kontratuak eta eskriturak

ETXEBIZITZA BABESTUAK

• SALEROSKETAK ETA ESKRITURAK

2016an, VISESAk, abian jarri zenetik lehen aldiz, Bilboko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin sinatutako akordioa betez, Bilboko Basurtu-Krugen eraikitzen ari diren etxebizitza librean salerosketa kontratuak formalizatu ditu. Sustapen horrek 3 euskal administrazioek 2008an sinatutako hitzarmenarekin du zerikusia. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak akordioa sinatu zuten Santiago eta Santa Ana auzokoekin, San Mame-setik Bilborako sarbide berriak egiteko desjabetzearen ondorioz ordezeko bizitokira joan behar izan zutenekin.

Aldi berean, alokairuan jartzeko babes ofizialeko etxebizitzak (BOEa) sustapen bat sinatu da Alokabiderek.

Halaber, babes ofizialeko etxebizitzak 2 sustapenetako eta etxebizitza sozialen sustapen 1eko eskriturak egiten hasi gara; haien lagapen-araubidea errentamendurako salmenta da.

Ekitaldi honetan hauek sinatu ditugu:

	2016	
	Kontratuak	Eskriturak
BOE	205	396
ES-BOEa	37	56
EA	12	-
Guztira	254	452



Lurralde historikoen arabera banakatuta:

	Kontratuak 2016an				Eskriturak 2016an		
	BOE	BOEa	EA	Guztira	BOE	ES-BOEa	Guztira
ARABA	27	21	-	48	28	21	49
BIZKAIA	155	-	12	167	258	1	259
GIPUZKOA	23	16	-	39	110	34	144
Guztira	205	37	12	254	396	56	452

BOE: babes ofizialeko etxebizitza - **BOEa:** babes ofizialeko etxebizitza alokairupean - **ES:** etxebizitza soziala

EA: etxebizitza askea

• **EROSTEKO AUKERA EMATEN DUEN ERRENTAMENDUA (EAEDE)**

Erosteke aukera ematen duen errentamendua (EAEDE) etxebizitza babestu bat 5 urtez erabiltzeko eta erosteke aukera edukitzea ahalbidetzen duen erosketa-modalitate bat da.

BPE EAEDE modalitatean eskaintzen den udalerriak

Ugao	2015etik
Eskoriatza	2015etik
Beasain	2015etik
Gasteiz	2013ko irailetik
Iruña-Oka	2013ko irailetik
Durango	2016ko urtarriletik

BPE: babes publikoko etxebizitzak (etxebizitza-mota guztiak hartzen ditu barne)

2016an sinatutako EAEDE kontratuak lurralde historikoen arabera banakatuta (BPE):

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Etxebizitzak (BPE) Partikularrak	48	19	9	76
Etxebizitzak (BPE) VISESA-ALOKABIDE	293	-	-	293
GUZTIRA	341	19	9	369

2016. urtearen amaieran, **bezero partikularrekin 345 kontratu** dauzkagu indarrean, **EAEDE modalitatean Babes Publiko Etxebizitzak** esleitzeko:

- 305 EAEDE kontratu Gasteizen (BOE).
- 8 EAEDE kontratu Iruña Okan (BOE)
- EAEDE kontratu bat Laudion (BOE)
- 4 EAEDE kontratu Ugaon (udal-etxebizitza tasatuak)
- 18 EAEDE kontratu Durangon (BOE)
- EAEDE kontratu bat Eskoriatzan (udal-etxebizitza tasatuak)
- 8 EAEDE kontratu Beasainen (etxebizitza tasatu autonomikoak)

• **EAEDE-N EROSTEKO AUKERA ERABILTZEA**

2016an, partikularrekin guztira 24 EAEDE eskritura gauzatu dira, denak **Gasteizkoak**.

ELEMENTU LIBREAK (lokal, garaje eta trasteleku libreak)

• **SALEROSKETA**

Partikularrekin	
Eskriturak	Salmenten zenbatekoa
43	613.654 €

• **EROSTEKO AUKERA EMATEN DUEN ERRENTAMENDUA (EAEDE) ETA ALOKAIRUA**

VISESAREN jabetzakoak diren **MERKATARITZA-LOKALEN** erosteko aukera ematen duen errentamendua (EAEDE) eta alokairua hasi dira honako udalerri hauetan:

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Gasteiz	Bilbo	Donostia
Laudio	Leioa	Eibar
	Basauri	Legazpi
	Ugao	Mutriku
	Derio	Pasaia
	Gernika	Beasain

2016an, Pasaian eta Beasainen ditugun lokaletan ere eskaini da modalitate hori.

Erosteko aukera ematen duen errentamenduak merkataritza-jarduera abian jartzen laguntzen duten neurri berritzaile batzuk dakartza:

- Lanpostuak sortzeagatiko hobariak (deskontuak errentan).
- Lokala egokitzeagatiko gabezia errentan, 6 hilabetetik 9 hilabetera.

LOKALAK erosteko aukera baliatzea. 2016an, lehen aldiz eskaera jaso eta formalizatu genuen hasieran erosteko aukera ematen duen errentamenduan zegoen lokal baten erosketa, Legazpin.

VISESAREN titulartasuneko **GARAJE LIBRE ETA TRASTELEKUETAN** erosteko aukera ematen duen errentamendua (EAEDE) honako udalerri hauetan:

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Gasteiz	Etxebarri	Donostia
Laudio	Sopela	Mutriku
Amurrio	Basauri	Hernani
	Ugao	Elgoibar
	Derio	Errenteria
	Gernika	Arrasate
	Bermeo	Eskoriatza
	Bilbo	Pasaia
	Durango	Beasain

2016an eskaintzan jarritako EAEDE modalitateko garajeak udalerri hauetan daude: Pasaia, Durango eta Beasain.

Taula honetan, **indarrean dauden EAEDE kontratuak** jaso dira, lurralde historikoaren arabera. **2016an sinatu direnen kopurua** ere jasota dago:

	EAEDE: LOKALAK		EAEDE: GARAJEAK		EAEDE: TRASTELEKUAK	
	GUZTIRA	2016	GUZTIRA	2016	GUZTIRA	2016
ARABA	4	4	40	37		
BIZKAIA	22	20	71	60	4	4
GIPUZKOA	7	2	73	58	3	3
GUZTIRA	33	26	184	155	7	7

• **GIZARTE-ERAGILEEKIKO ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEEKIKO ELKARLANA**

VISESAren lokalak dinamizatzeko planaren testuinguruan, zehatz-mehatz gizarte-eragileekin, erakunde publikoekin edo gizarte-eta ikerketa-lanak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuarekin elkarlanean aritzeko atalean, VISESAk honako hauek formalizatu ditu:

- Eibarren hamar urtez lokal bat alokatzeko kontratu bat, AECCrekin (Gipuzkoako Probintzia Batzarra), elkartearen Debarrenako eskualde-egoitza kokatzeko, informazioa eta kontzientziakoa, ikerketa onkologikoaren sustapena eta gaixoei eta senideei laguntzeko eta babesteko zerbitzuak errazteko helburuarekin.
- Morlanseko (Donostia) lokalari dagokionez, EAEDE kontratu bat HURKOA fundazioarekin; ahulezia-, mendekotasun- edo babesgabatasun-egoeran dauden adinekoei eta/edo buru-gaixotasunak dituzten pertsonen arreta eta tutoretza ematen die fundazioak, batik bat Gipuzkoa lurraldean.

ZUZENeko ADJUDIKAZIOA - ZOZKETARIK GABE - ETXEBIZITZA BABESTUAK

Urte honetan zehar, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aginduak eman dira sustapen hauetan **zuzeneko adjudikazioa** hasteko:

Sustapena	Zuzeneko adjudikazioa
Gernika (B51)	2016, otsaila
Sestao-Labariega (B31)	2016, otsaila
Bilbo-Miribilla (B38)	2016, martxoa
Bilbao-San Anton (B49) (AMAIERA MERKATURATZEA - 2016, azaroa)	2016, martxoa
Bilbao-Ametzola (B50)	2016, martxoa
Basauri-Basozelai (B60)	2016, martxoa
Basauri-Sarratu (B69)	2016, martxoa

Sustapen horiek ez ezik, aurreko urteetan zuzeneko adjudikazioa egiteko aginduak lortu zituzten beste batzuk ere badaude:

Sustapena	Zuzeneko adjudikazioa
Gasteiz (5 sustapen) 2 sustapen Salburuan 3 sustapen Zabalgotan	13-apirila
Iruña Oka	13-apirila
Eskoriatza	13-apirila
Beasain	13-urria
Ugao	14-urria
Durango	14-ekia

Derio (amaiera merkaturatzea, 16-mai)	14-eka
Eibar	14-eka
Llodio (amaiera merkaturatzea, 15-uzt)	14-ira
Sestao	14-aza
Irun (G-51)	15-ots
Bolueta – Bilbo (B-46)	15-ots
Leioa (2 sustapen)	15-mar
Pasaia (amaiera merkaturatzea, 16-urt)	15-mar
Areta-Laudio 1 BOE	15-api
Leioa	15-mai
Bolueta BOE - Bilbo	15-eka
Hernani	15-eka
Barakaldo	15-urr

2016an zuzeneko adjudikazioaren bidez **sinatutako kontratuen** kopuruaren **laburpen-taula**, lurralde historikoen arabera banakatuta:

	SE - BPE	EAEDE - BPE	GUZTIRA
ARABA	27	102	106
BIZKAIA	125	3	82
GIPUZKOA	24	0	34
GUZTIRA	176	105	222

SE: salerosketa - **EAEDE:** erosteko aukera ematen duen errentamendua

• **ETXEBIZITZA BABESTUAK EROSKETA-ARAU BIDEAN ADJUDIKATZEKO ZOZKETAK**

2016an zozkatutako BOE-en kopurua, guztira:

	BOE-en zozketa-kopurua 2016an
BIZKAIA	78 BOE

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

• **LURZORUAREN SALMENTA**

Lurzorua saltzeko 2. deialdia dela eta (2015eko urrian egin zen), aurtan, honako lurzoru-salmentako (VTS) eskritura hauek gauzatu dira, etxebizitzetara dagokienez:

	VTS (babes publikoko etxebizitzak)
ARABA	14
BIZKAIA	3
GUZTIRA	17

4.2.4. Berrikuntza, jasangarritasuna eta zaharberrikuntza

Visesak egunez egun lan egiten du, etxebizitzak eraikuntzako erreferentzia izateko eta zeregin hori ingurumena eta, batez ere, herritarrak edozein ikuspuntutatik zaintzen dituen ikuspegi berritzaile bezain jasangarritik betetzeko. Hona hemen Visesak 2016an garatu dituen proiektuak.

ERAIKINEN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

Neurri orokorrak:

- Gure sustapen guztietan, **“Visesaren diseinurako eta eraikuntzarako irizpideak”** betetzen dira zehatz-mehatz. Irizpide horien ondorioz, autoeskakizun handiak ezarri behar dira eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren arloan.
- Kalitatearen bermea den ziurtagiri energetikoa. Visesak % 30eko gutxieneko aurrezki energetikoa ziurtatzen du bere eraikin guztietan, kalitatearen berme moduan. Hori dela eta, A, B eta C mailako kalifikazio energetikoak dituzte.

Hauetako dira etxebizitzek 2016an jaso dituzten kalifikazioak:

A kalifikazioa: % 0
B kalifikazioa: % 81
C kalifikazioa: % 19

Erreferentzia balioekin konparatuz lortutako batezbesteko aurrezpena (“Calificación de la eficiencia energética de los edificios” agiria, IDAE 2015)

- CO₂ isurien % 46ko aurrezkoa
- energia primario ez-berriztagarriaren % 42 aurrezte

Lurralde Historikoa	Etxebizitzak guztira	Sustapenaren kokapena	ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA (EEZ)						
			LORTUTAKOA (BENETAKO ERAIKINA)			ARAUTEGIA (ERREFERENTZIAKO ERAIKINA)		HOBEKUNTZA (AURREZKIA %)	
			Kalifikazioa	Igorpenak (kg CO ₂ /m ² urteko)	Lehen mailako ener. (kWh/m ² urteko)	Igorpenak (kg CO ₂ /m ² urteko)	Lehen mailako ener. (kWh/m ² urteko)	CO ₂ igorpenak	Lehen mailako energia
Gipuzkoa	62	Eibar	B	10,6	49,5	20,6	91,6	%49	%46
Bizkaia	108	Leioa-Leioandi	B	7,0	33,0	14,8	65,3	%53	%49
Gipuzkoa	16	Irun-Oiñaurre	C	15,8	74,6	20,6	91,6	%23	%18
Bizkaia	96	Leioa-Leioandi	B	6,9	33,1	14,8	65,3	%53	%49
Gipuzkoa	48	Irun-Oiñaurre	C	15,1	71,4	20,6	91,6	%27	%22

- Eguzki-energia termikoko instalazioak.** Visesak eguzki-hargune termikorako (edo beste iturri berriztagarri baliokide baterako) hodi biltzaileak jartzen ditu bete sustapenetan, gutxienez ur bero sanitarioarako beharrezko urteko batez besteko energia guztiaren % 60 hornitzeko (arautegiaren arabera, % 30ekoa da).
- Sustapen guztietako jasangarritasunaren diseinua eta ebaluazioa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzarako **Eraikuntza Jasangarriaren Gida** kontuan hartuta.
- A edo hortik gorako kalifikazioko etxetresna elektrikoak dituzten etxebizitzak.
- Kontratazio publiko berdea: eraikuntzako obrak lizitzatzeko orrien anbigüoak.
- Obra betearaztean ingurumena segurtatzeko planaren prestaketa.

Proiektuak:

- Visesak sustatutako hiru eraikinetako **jabekideen erkidegoei energia-zerbitzuak ematen diegu**, A energia-kalifikazioarekin eta eraginkortasun altuko mikrogenerazio-sistemarekin (aldi berean beroa eta elektrizitatea sortzea), errendimendua optimizatzeko asmoz. Horretarako, Visesak kogenerazio-ekipamenduen titulartasunari eusten dio, galdara-gela osoaren eragiketa eta mantentzea kudeatzen ditu eta auzotarrak berokuntzaz eta ur beroaz behar bezala hornitzen ditu. 445 etxebizitzari eragiten dieten kontratuak kudeatzen ari gara.
- **OSIRYS** (I+G 7. Esparru Programaren Europako proiektua). 2013ko ekainean hasi zen eta lau urte iraungo du. Ekomaterialak (bioerretxinetan eta biozuntzetan oinarrituak) garatzea du helburu; fatxadak eta barne-zatiketak eraikitze material klasikoei gehituz gero, barneko airearen kalitatea hobetzea eta itxituretan hobeto amasa egitea ahalbidetuko dute. 18 kideko partzuergo batek garatzen du. Proiektu horretan, VISESAren zeregina garatutako materialak Morlans sustapenean (70 BOE-alokairua) egingo den ereduazko etxebizitzan integratzean datza, batez ere. Obra 2016ko martxoan esleitu zen eta 2016ko maiatzean hasi zen eraikitzen. Produktuak 2017ko maiatzean jarriko direla aurreikusi da.

HIRI-GARAPEN JASANGARRIAK - ZAHARBERRIKUNTZA

FosterREG (2015-2017) (Horizon2020 I+G Esparru Programako Europako proiektua). Helburua: "Administrazioaren maila guztien (birgaitzeko hirigintza-sozietateak, eskualdeko administrazioa/sustatzalea, eskualdeko energia-agentziak) arteko gaitzuntza, koordinazioa eta lankidetzak erraztea, energia-birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen arloan erabakiak hartzeko katean oztupoak ezabatze asmoz".

Proiektuaren baitan, tailer batzuk garatu dira 2016an eta hainbat eragilek hartu dute parte. Izan ere, tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako erakunde publikoen ordezkariak hiri-berroneratzeari loturiko proiektuetan energia-eraginkortasuna bultzatzeko estrategiak eztabaidatu dituzte. Azterketaren emaitzak arlo horretan egon daitezkeen oztupoak eta aukerak identifikatzeko erabili dira, baita prestakuntza- eta trebakuntza-ekintzak abian jartzeko ere; hori guztia, plangintza integratu, eragileen konpromiso, energia-eraginkortasunaren finantzaketa, energia-eraginkortasuneko soluzio eta abarrei dagokienez, administrazioari langileen abileziak garatzeko helburuz (informazio gehiago: www.fosterreg.eu).

SmartEnCity (2016-2021) (Horizon2020 I+G Esparru Programako Europako proiektua). Helburua: proiektu handinahia, "Hiri eta Erkidego Adimentsuak" Europako programan kokatua. Horren arabera, Gasteiz "faro-hiria" izango da, eta bertan eraginkortasun energetikoaren, garraioaren eta IKTen inguruko irtenbide batzuk aplikatuko dira, modu integratuan eta herritarren bizitza hobetzeko asmoz.

Gasteizen, Visesak arduratzen den jarduketara 5 etxadi hartzen dituen eremuan garatzen da (1.313 etxebizitza), Koroatze auzoan; bertan, 750 etxebizitza birgaitzeko eta biomasan oinarritutako bero-sarea zabaltzeko proposamena egin da.

Bost urte eta erdi iraungo duen proiektua 2016ko otsailaren 1ean abiarazi zen, Gorka Urtaran Gasteizko alkatearekin eta Angel Toñá sailburuarekin Aldabe Gizarte Etxean antolatutako ekitaldian, SmartEnCity ekimenari hasiera ematea, eta ondoren, proiektua abiarazteko bilera, Gasteizko Europa Biltzar jauregian. Europako 6 herrialdeetako 35 kidek hartu zuten parte.

Lehenengo urte honetan, hainbat alderdi landu eta hirigintza-kudeaketak burutu dira, arlo desberdinetan aurreikusitako jarduerak garatu ahal izateko. Izan ere, auzoaren diagnostiko zehatza egin ondoren, plan berezi bat egin da, baita berrurbanizatzeko eta bero-sarea egiteko aurreproiektuak ere.

VISESA, zaharberritzeko lanak kudeatzailerak eta sustatzailerak, lehendik dauden eraikinekin loturiko aurreproiektuen garapenean ere buru izan da. Eraikinak hainbat motatakoak izanik, aurrekontu bana egin du eremuko 108 ezkaratz bakoitzeko. Era berean, informazio-bilerak egin ditu jabeen erkidegoen erdia baino gehiagorekin.

Horretaz gain, 2016an, hainbat ekitaldi publiko burutu dira, proiektuaren berri auzokoei emateko eta euren artean zabaltzeko. Bulego bat ere ireki da Pintoreria kalean, proiektuarekin zerikusia duen informazioa emateko eta bilerak egiteko.

(informazio gehiago: www.vitoria-gasteiz.org/coronacion; www.smartencity.eu)

4.3. BEZEROAK

4.3.1. Kokapena



4.3.2. Bezzeroekiko harremanak

ETXEBIZITZA PILOTUAK ETA ATEAK ZABALTZEKO EGUNA

Aurten ere, etxebizitza pilotuak zabaltzen jarraitu dugu; horixe da Visesak etxebizitzak etorkizuneko jabeengana eta herritarrengana oro har hurbiltzearen alde egiten duen apustua. Etxebizitza pilotuak zabaltzearen helburua eskaintzen dugun zerbitzua hobetzea eta etxebizitzak gure sustapenak bisitatzen dituzten pertsonengana hurbiltzea da.

Etxebizitza pilotuak honako 2 sustapen hauetan zabaltu dira:

- Leioa B-77 96 BOE. 2016ko uztaila (bisitari kopurua: 527)
- Eibar G-40 62 BOE. 2016ko ekaina (bisitari-kopurua: 212)

Proba pilotua egiteko, Eibarko sustapenean, **altzari guztiz jantzitako 2 etxebizitza pilotu** lau asteburuz irekita egon dira, interesdun guztiek akaberak eta materialak gertutik ikusteko eta probatzeko, euren etxearen irudi gero eta errealistagoa izan dezaten. Horixe da VISESAk etxebizitzak etorkizuneko jabeengana eta herritarrengana oro har hurbiltzearen alde egiten duen apustua.



ETXEBIZITZA PILOTUAK BISITATU DITUZTENEN GUZTIZKO KOPURUA - ATEAK ZABALTZEKO EGUNA
(2016): 739 bisitari

WEBGUNEARI BURUZKO DATUAK

Visesaren webgunea www.visesa.eus bisitatzen dituztenen kopurua nabarmen areagotu da, aurreko urteekin konparatuta. Izan ere, 2016an, 152.359 bisita izan ditu webguneak.

BEZEROEKIKO KOMUNIKAZIOAK

- **Gardentasunaren aldeko apustua: adjudikazio-zozketak webgunearen bidez eman dira,** irekia.euskadi.eus-en

Visesak sustapenen adjudikazioan gardentasunaren aldeko apustuari eutsi dio eta, horretarako, etxebizitzak adjudikatzeko zozketak webgunean eman ditu. Aurtan, streaming bidez sustapen bat eman da, irekia.euskadi.eus-en eta gure webgunean: Bilbao Basurtu-Krug, 78 BOE esleitzeko eskatzaile gisa izena eman dutenak 354 izanik.

- **Arabako eta Euskadiko higiezin erakusketak**

Laugarren urtez, Visesak parte hartu du **Arabako eta Euskadiko higiezin erakusketetan**, ezinbesteko topaguneak baitira etxebizitza bila dabiltzanentzat eta arloko profesionalentzat.

Gasteizko Europa Jauregian urrian antolatu zen Arabako higiezin erakusketan, Visesak Iruña Okan eta Eskoriatzan eskuragarri dauden etxebizitza babestuen salmenta aurkeztu zuen. Bestalde, Bilboko Euskalduna Jauregian, azaroan, Euskadiko Higiezin Erakusketan antolatu zen. Bertan, besteak beste, Bolueta (Bilbo), Sestao, Barakaldo eta Durangoko etxebizitza babestuen sustapenak merkaturatzeko eskaintzak Visesaren standa bisitatu beharreko tokia bihurtu zuen erakusketara hurbildu zirenentzat.

- **Egurtek**

Egurtek, Nazioarteko Zuraren Arkitektura eta Eraikuntza Foroa, Visesak beti bisitatzen duen beste ekitaldi bat da. Urriaren 20an eta 21ean antolatzen da, *BEC-Bilbao Exhibition Centre* erakusketan zentroan. Azoka horretan sektoreko profesionalak biltzen dira, esperientziak partekatze eta praktika onak trukatzeko. Ildo horretan, Visesak azokaren erakusketetan parte hartu zuen, Hondarribiko proiektuaren berri emateko. Proiektu horretan, ia energia-kontsumorik ez duen sustapena izateko, egur kontrala-minatuzko panelen eraikuntza sistema egitura-elementu gisa erabili da barruko hormetan, fatxadetan, solairuko forjatuetan eta estalkietan, baita igogailuko hutsuneetan eta eskaileretan ere.

SALDU OSTEO ZERBITZUA

2016. urtean 5.263 dei jaso dira, 2015. urtean baino % 30 gehiago.

2016an emandako zerbitzuaren maila % 85ekoa izan da.

Halaber, 1.983 mezu elektroniko jaso dira sap@visesa.com helbidean; hortaz, % 27ko gutxikuntza egon da aurreko urtearekin erkatuta.

Jabeen erkidegoekin 5 hitzarmen sinatu dira, hedapen desberdinetakoak, honako sustapen hauei dagokienez: A-13 (254 Zabalzana), A-18 (401 Salburua), B-34 (127 Etxebarri), B-38 (96 Miribilla) eta B-42 (114 Ugao).

Obrak onartu aurretiko berrikuspena honako sustapen hauetan burutu da: B-77 (108 BOE Leioa), B-78 (96 BOE Leioa), G-40 (62 BOE Eibar) eta G-51 (32 ES + 48 BOE + 48 BOE Irun). Era berean, honako sustapen hauetako etxebizitzak erakutsi zaizkie bezeroei: G-51 (32 ES + 48 BOE + 48 BOE Irun), B-78 (96 BOE Leioa) eta G-40 (62 BOE Eibar).

ADJUDIKAZIO-JAKINARAZPENAK - JABEKIDEEN ERKIDEGOEN ERAKETA

Bulegoak		
Adjudikazio-jakinarazpenak: SALMENTA + EAEDE	Uko egiteak: SALMENTA + EAEDE	Egindako hitzorduak
808	360	1.736

2016. urtean sustapen honetako jabekideen erkidegoa eratu da:

Sustapena	Eraketaren data	Tokia
Barakaldo 92 BOE (B81)	2016/01/19	Bilbo
Basauri-Sarratu 60 BOE (B69)	2016/02/16	Bilbo
Hernani 74 BOE (G38)	2016/03/17	Hernani
Eibar 62 BOE (G40)	2016/10/25	Eibar
Leioa 96 BOE (B77)	2016/11/27	Leioa

BEZEROEN GOGOBBETETASUNA

2016. urtean ere Visesak bezeroen gogobetetasun-maila ezagutzeko azterlanak egin ditugu, hain zuzen ere, Basauri 60 BOE, Hernani 74 BOE, Barakaldo 92 BOE eta Leioa 100 BOE sustapenei dagokienez.

Urteko gogobetetasun-indize orokorra 47,97 izan da, eta bezeroen gogobetetasun-indize globala (inkestan erantzundako ezaugarrien arabera haztatua) 58,06 puntu izan dira.

Ezaugarri bakoitzari buruzko iritzari dagokionez, etxebizitzaren kokapenak eta neurriek jaso dute ebaluaziorik onena, aurreko azterketetan gertatu zen bezala.

GOGOBBETETASUN-MAILA	EBALUAZIOA
Etxebizitzaren kalitatea eta akaberak	54,72
Etxebizitzaren eta eranskinen kokapena eta neurriak	70,13
Prezioa	54,32
Eman arteko zerbitzua	56,87
Saldu ondoko zerbitzua	50,59

Bezeroek, beren gogobetetasunerako, garrantzi handiagoa ematen diote etxebizitzaren kalitate eta banaketari, baita kokapen eta neurriei ere. Zerbitzuak, bai eman aurrekoak bai eman ondokoak, garrantzi txikiagoa izaten du gogobetetasuna ebaluatzerakoan.

	Garrantziaren %
Etxebizitza	24,50
Kokapena eta neurriak	24,70
Prezioa	20,00
Eman arteko zerbitzua	15,60
Eman osteko zerbitzua	15,80

EUSKO JAURLARITZAREN TITULARTASUNEN MERKATARITZA-KOLAKAK MERKATURATZEKO LAGUNTZAK

Visesaren eta Etxebizitza Sailburuordetzaren elkarlanaren eta optimizazioaren arloan, bezeroekin harremanetan jartzeko 2015ean martxan jarri ziren azpiegiturei dagokienez, aurtan ere, Visesaren bulegoetan Etxebizitza Sailburuordetzari atxikitako lokalen ze-

rendak bezeroen esku jarri dira, Visesarren lokaletan interesatuta dauden guztiei sailburuordetzaren berri eman ahal izateko, lurralde-ordetzaritza bakoitzeko arduradunarekin harremanetan jartzea erraza izan dadin.

4.4. SOZINETATEA

4.4.1. Hasitako eta amaitutako etxebizitzak

Guztira babes publikoko 984 etxebizitza hasi dira EAEn 2016an, eta Visesak gure erkidego osoan hasitako etxebizitza guztien % 31,7 ekarri ditu. Visesak 2016an hasitako babes publikoko etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitzak (BOE), gizarte-etxebizitzak (ES) eta etxebizitza tasatu autonomikoak (ET) izan dira.

EAEn hasitako etxebizitzak		
BOE	ES	ET
797	28	159

Visesak hasitako etxebizitzak		
BOE	ES	ET
268	14	30

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia


Guztira babes publikoko 1.596 etxebizitza amaitu dira EAEn 2016an, eta Visesak gure erkidego osoan amaitutako etxebizitza guztien % 20,7 ekarri ditu. Visesak 2016an amaitutako babes publikoko etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) izan dira.

EAEn amaitutako etxebizitzak		
BOE	ES	ET
1.466	90	40

Visesak amaitutako etxebizitzak	
BOE	
330	

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia

VISESAK HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZEN KUOTA, EAEN HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA



4.4.2. Tokiko erkidegoko inbertsioak

Visesa eraikuntzaren sektoreko jarduera ekonomikoko eragile nabaria da, EAEko eragile publiko zein pribatuen mobilizazio ekonomikoa sustatzen du-eta, 2016an gastuaren kontzeptuagatik egindako ordainketen hurrengo taulan ikusten den bezala.

Kontzeptua	Zenbatekoa (milaka euro)
Obrako ziurtagiriak	21.370.274,72 €
Lurzorua	29.447.538,81 €
Interesak eta gastu finantzarioak	3.847.811,82 €
Sukaldeak	756.753,09 €
Teknikoen ordainsariak	1.364.550,94 €
Asistentzia teknikoak (entseguak, kontrol teknikoa eta saldu osteko zerbitzua)	867.191,07 €
Aseguruak	419.539,57 €
Gremioen konponketak	577.417,76 €
Udal-zergak	745.029,79 €
Alokairuak	352.523,38 €
Sustapenetako zaintza	177.073,69 €
Kontsultoretzak eta auditoriak	151.989,33 €
Notarioak eta erregistroak	332.710,20 €
GUZTIRA	60.410.404,17 €

4.4.3. Aliantzak, hornitzaileak eta laguntzaileak

ALIATUEN, HORNITZAILEEN ETA LAGUNTZAILEEN ZERRENDIA

Visesak 2016an gurekin lan egin duten hornitzaileei, aliatuei eta laguntzaileei eman nahi dizkie eskerrak egin duten lanagatik.

Proiektuaren idazleak:

A54 ARQUITECTOS	HIRILAN ARKITEKTURA HIRIGINTZA, SLP.
ALBERTO SANTANDER ORCASITAS	I2G ARQUITECTOS
AN+EL ARQUITECTOS ASOCIADOS, S.C.P	IDOM Proyectos Integrados
BAT	I-INGENIA
BIDEIN Ingeniería	ITAU
COOPERATIVA ARQUITECTURA	KATSURA
DEURBE ARQUITECTOS	SAITEC
DINAM Ingeniería	SAN JUAN ARQUITECTURA
D.G. ARQUITECTURA HABITABLE S.C.P.	SATIE ARQUITECTOS S.L.P
ESTUDIO URGARI	SOLA, TORRES VIDAURPAZAGA ARQUITECTOS S.L.P
EUSKAL TYM	TYPSA
GAUSARK	UTE ABAR ACHE
GERMAN VELAZQUEZ ARTEAGA	UTE J. BARCOS / M. ENRIQUEZ
G&C ARQUITECTOS	

Enpresa eraikitzaileak:

BYCAM SERVICIOS, EDIFICIOS E INFRAESTRUCTURAS	CONSTRUCCIONES SUKIA, S.A.
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS	EXBASA OBRAS Y SERVICIOS S.A.
CONSTRUCCIONES AMENABAR	JAUREGUIZAR PROMOCIÓN Y GESTIÓN INMOBILIARIA, S.L.
CONSTRUCCIONES MOYUA SL	LURGOIEN, S.A.
CONSTRUCCIONES MURIAS	VUSA, VALERIANO URRUTIKOETXEA

Kontrol teknikorako organismoa:

APPLUS NORCONTROL, S.L.U.	EUROCONSULT NORTE
BSP CONSULTORES	INTEMAC
C.P.V. CONTROL TÉCNICO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS, S.A.	OCA ICP CONSTRUCCIÓN
ECA, ENTIDAD COLABORADORA DE LA ADMINISTRACIÓN, S.A.U.	S.G.S. TECNOS, S.A.

Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak:

ASEM	INGECOR
BAT EGIN	NASERGES
BPG COORDINADORES	RCS ARQUITECTURA Y PREVENCIÓN
BSP CONSULTORES	SERVASCO
CPV-CONTROL TECNICO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS, S.A.	SYMAT ASESORÍA TÉCNICA, S.L.P.
CSP, COORDINACIÓN DE SEGURIDAD	ZURIÑE ABERASTURI
EUROCONSULT NORTE, S.A.	

Saiakuntzetarako laborategiak:

AAC, CENTRO DE ACÚSTICA APLICADA, S.L.	GIKESA
APPLUS NORCONTROL, S.L.U.	IKERLUR, S.L.
AROA GEOTECNIA, S.L.L.	LABIKER, S.L.
CONSEC, S.A.	LABORATORIO GOBIERNO VASCO
EPTISA Cinsa, GRUPO EP	LURGINTZA INGENIERÍA GEOLÓGICA, S.L.
EUROCONSULT NORTE, S.A.	SAIOTEGI, S.A.
EUSKONTROL, S.A.	SAITEK INGENIEROS, S.A.
FUNDACIÓN TECNALIA	SERINKO-EUSKADI, S.L.

I+G+b-ko proiektuetako laguntzaileak:

ACCIONA INFRAESTRUCTURAS	EVE
AIMPLAS	FUNDACIÓN CARTIF
AGRUPACIÓN CLUSTER DE ELECTRODOMÉSTICOS	GIROA
AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ	GOBIERNO DE ROGALAND (NORUEGA)
AYUNTAMIENTO SONDERBORG (DINAMARCA)	IHOBE
AYUNTAMIENTO TARTU (ESTONIA)	LABORATORIO GOBIERNO VASCO

CENTRO DE ESTUDIOS AMBIENTALES (CEA)	MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVA
CENTRO TECNOLÓGICO EMI (HUNGRÍA)	TECNALIA
ENAR	UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
ESTUDIOS GIS	

Saldu osteko zerbitzua:

BELAKO LANAK, SL	ESTUDIO DE ARQUITECTURA XABIER SANCHEZ
C.B. JOSÉ DIEZ MARCOS Y FRANCISCO ONDARRA RUIZ	GABIKA EXCAVACIONES
CONSTRUCCIONES MURIAS	GIROA-VEOLIA
CONSTRUCCIONES URRUTIA, S.A.	XUPERIA, S.A.
ELECINOR INFRAESTRUCTURAS, SA	

Kideak:

ACLIMA	E2BA
APD	INNOBASQUE
AVS-AVS Euskadi	LEHDCO
BILBAO EKINTZA	Q-EPEA
ERAIKUNE	RIS3 EUSKADI
EUSKALIT	SESTAOBERRI

Higiezinaren jabetzako agenteak (HJA):

BIDEBI BASAURI	INMOBILIARIA ETORKI
CONVENIO COLEGIO AGENTES PROPIEDAD INMOBILIARIA DE BIZKAIA	INMOBILIARIA LANDAKO
KASETAS GESTIÓN INMOBILIARIA	INMOBILIARIA GIETALIA
INMOBILIARIA BERMEO BAI	INMOBILIARIA MACIAS
INMOBILIARIA DURANGUESADO	INMOBILIARIA DEL VALLE DE DEBA

Beste laguntzaile batzuk:

ACTUALIZA INTERNET THINKING	MAP
ALTIA	ITS
AON GIL Y CARVAJAL, S.A.U.	KRATA, S.A.
AQUA SERVICE	LIMPIEZAS ABANDO
ALAMO Consulting	LIMPIEZAS CLECE
ATTEST	LKS
AUZO LAGUN	LOYER
BK CONSULTING	LURTEK
BOGA CONSULTORES	ODEI
CAMPO Y OCHANDIANO	OLATZ ARRIETA BAIGES
COLEGIO ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO	PRAXIS Lg CONSULTORES
CUSTAR	PRECISA INGENIERIA TOPOGRAFICA

DELTA SEGURIDAD	PROSETECNISA
DINOF, S.A.	MBN COMUNICACIÓN
ECNA INFORMATICA	MUDANZAS EL BARCO
EDP COMERCIALIZADORA	NATURGAS
EL CORTE INGLES S.A.	S2G SERVICIOS GENERALES DE GESTIÓN
EMANA	SERIKAT
ETRA	SERVATAS
EUSKALTEL	SIKONTROL SERVICIOS
EUSKO IRRATIA S.A.	TECNITASA SERVICIOS DE TASACION
EUSKO RENTING	TELBASK
F4KT	TELEFÓNICA MOVILES
FUNDACION NOVIA SALCEDO	UDABERRIA EUSKALTEGIA
GARRIGUES ABOGADOS	UNEBIDE
GIKESA	UTE AON -EGIASA
GUREAK MARKETING	UTE MAPFRE Y MAPFRE EMPRESAS
HIRU LAN DA LAN	VIAJES EROSKI, S.A.
HORI	WOKO CREATIVOS
IBAI SISTEMAS	XEY CORPORACIÓN EMPRESARIAL
IBERDROLA	XP
IKERLUR Geología y Geotecnia	XUPERA
ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DEL PAIS VASCO	ZIHURKO
IMQ	ZORROZAURRE JUNTA DE CONCERTACIÓN
INSTITUTO LABAYRU IKASTEGIA	

GURE BALIO-KATEA



Visesak eta Alokabidek Eusko Jaurlaritzako etxebizitza-politika garatzeko funtsezko tresna gisa jarduten dute, sinergia interes-gariak sortzen dituen balio-katea bat eratuz: lurzorua eskuratuz, kudeatuz eta urbanizatuz, euskal herritar guztientzako kalitate oneko etxebizitzak sustatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitza askoren alokairua kudeatuz.

Euskal herritarrei kalitate oneko etxebizitza arrazoizko prezioetan edukitzeko eskubidea gauzatzen laguntzea da helburu nagusia.

Horretarako, sozietateetako zuzendaritzek kalitate-kudeaketako, lan-arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko sistema integratu bat diseinatu eta ezarri dute, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari begira, sozietateen eremu eta jarduera guztietara heltzen baita eta helburuak erdiesten laguntzen baitie.

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA


Visesan, gure sustapenetan segurtasun-baldintzak hobetzeko ahaleginak egiten jarraitzen dugu eta, ondorioz, laneko ezbehar-tasa murrizten dugu, EAEko eraikuntza-sektoreko ezbehar-tasaren indizeekin erkatuta.

2016an ikus dezakegunez, istripuen kopurua igo da eta 1000 langileko 52,64 istripu gertatu dira. Aztertutako aldian zehar, jokae-ra ziklikoa dela eta bost urtean behin joerak errepikatzen direla ikus daiteke, hala ere, aztertzeko aldia luzatu behar da ondorio biribilak atera ahal izateko.

Ez da istripu hilgaririk gertatu 2007. urtetik, eta 2016an arintzat jo diren 11 istripu arin jazo dira, eta 1 larritzat jo da. Istripu arin horietako sei azpikontratututako enpresa berean gertatu dira, bi obra desberdinetan. Istripuen % 85,7 irailean jazo dira.

Visesako eraikuntza-obretako eraginaren indizeetako emaitzak Lankidetza Hitzarmenaren esparruan

Urtea	EAEko eraginaren indizea (1.000 biztanleko)	Visesako obren eraginaren indizea (1.000 biztanleko)	Eraginaren indizeen arteko lotunea (%)
2006	141,00	55,01	39,01
2007	126,30	43,90	34,76
2008	126,70	42,00	33,15
2009	108,37	35,50	32,76
2010	107,97	27,03	25,03
2011	90,70	52,98	58,41
2012	76,53	41,76	54,57
2013	73,42	35,76	48,71
2014	76,21	36,91	48,43
2015	78,08	14,34	18,37
2016	80,78	52,64	65,17

Visesako eraikuntza-obretako eraginaren indizeetako emaitzak Lankidetza Hitzarmenaren esparruan

KALITATEAREN EUROPAR ASTEA

Kalitatearen Europar Astea urtero Europar Batasun osoan ospatzen den ekimen bat da eta kalitatea sustatzeko eta zabaltzeko topagunea izatea du xede. Ekimenak askotariko ekitaldiak hartu ditu bame, hala nola hitzaldiak, mahai-inguruak edo world café-ak, izaera praktikoarekin, jendeak aktiboki parte har dezan, erakunde ugariaren kudeaketa-jardunbiderik onenak hedatzen diren bitartean.

Atentzioa ematen duten eta sentsibilizatzen duten edukiak eta txostenak aurkeztea da helburua, kudeaketa aurreratuari, bikaintasunari, berrikuntzari, gizarte-konpromisoari, iraunkortasunari eta lehiakortasunari buruzkoak, zenbait talde profesionalentzat.

Visesak 2004tik darama Kalitatearen Europar Astea parte hartzen, esperientziak eta gogoetak ikasteko eta jendaurrean egoteko ingurune batean partekatzen.

2016an, Kalitatearen eta Bikaintasunaren XXII. Europar Astea, Euskadin, Visesak antolatutako ekitaldia ez ezik beste 50 ere egin dira; 68 enpresa antolatzailek parte hartu dute eta 2.800 pertsona baino gehiago etorri dira.

Visesak 2016ko azaroaren 15ean antolatutako jardunaldiaren izenburua "BIM. Eraikuntzan lehiakortasuna hobetzeko giltza" izan da. Bertan, gure lankideek, Miguel González, Nerea Morgado eta Goretti García, Eraikune eta beste parte-hartzaile batzuekin batera, Visesaren esperientziaz hitz egin dute.

Jardunaldiak puntuazio bikaina eduki zuen ebaluazioan, 7.5 puntu, Orik 10erako eskalan.

PROIEKTU SOLIDARIOAK

Elkartasuna balio garrantzitsuenetako bat denez, Visesan lan egiten dutenek jarraitzen dute garapen bidean dauden herrialdeei laguntzen. Visesak eraikuntzaren arloarekin zerikusia daukaten eta ahal den neurrian emakumearen garapenaren eta ahalduztzearen alde egiten duten proiektu solidarioetan parte hartzea sustatzen du.

2016. urtean, Shabundan, Kongoko Errepublika Demokratikoko Hego Kivu probintzia osatzen duten zortzi lurraldeetako batean, Bukavu hiritik 340 kilometrora, ama-eskola bateko hiru gela eraikitze proiektuan lagundu dugu. 2016. urtea Religiosas Misioneras del Divino Maestro kongregazioarekin elkarlanean aritu garen segidako LAUGARREN urtea izan da. Hainbat osasun-zentro eta eskola birgaitzeko proiektuan lagundu dugu.

Martxan jarritako proiektu guztiek helburu bera dute: bertakoek eraikuntza-lanetan parte hartzea. Proiektu horrek, izan ere, oso eragin handia eduki du zentzora joaten diren familien eta haurren garapenean eta eskola eraikitze proiektuan aktiboki parte hartu duten pertsona askoren garapen profesional zein pertsonalean.





AURTEN ERE, **VISESA** OSATZEN DUGUN PERTSONEK, ENPRESAREN XEDEAREKIKO ETA IKUSPEGIAREKIKO KONPROMISOA BERRITZEN DUGU. HORRENBESTEZ, 2017AN GOGOR LAN EGITEN JARRAITUKO DUGU GURE HELBURUA BETETZEKO: **EAEKO** PERTSONEK KALITATEZKO ETXEBIZITZA EGOKIAK EDUKI AHAL IZATEA.